



Heziberri

Zer datorren EAEko eskoletara
hurrengo ikasturtean



Askoa Etxebarrieta
flamenko dantzariaren garra

M-22 Pirinio Atlantikoetako bozak

Mozal Legeak delitu
bihurtuko du kazetaritza

Adolfo Araiz (EH Bildu):
"Euskal Bidearen aurretik
dago nafar bidea"

Zuri esker

“Gizarte
Zerbitzuei esker,
nire lagun
Naiarak kalte
egiten zion
harremana
gainditu du eta
libre bizi da orain.”

Ainhua, 17 urte



Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus



Azaleko argazkia:
JOSEBA LARRATXE
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estiñu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Irizkiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iamaeta interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko martxoaren 15a, 2.453. zenbakia

ASTEKO GAIA

HEZIBERRI LOMCEren aurrean, zer lortu du eta zer ez Jaurilaritzaren curriculumak? MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

ASKOA ETXEBARRIETA: «Egunero borrokatzeko motibazioa eman dit flamenkoak». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIAK

MATXISMOA KIROLEAN Berdintasuna ipurdiz gora. JON TORNER ZABALA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

GREYREN 50 ITZALAK ETA FEMINISMO ORTODOXOA JUNE FERNÁNDEZ / 18

AHT-REN KONTRAKO BERBA IÑAKI BARCENA / 20

EUSKALDUNAK ETA EUSKARA IMANOL ALVAREZ / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Datuak eta pertsonak mintzo. EDU ZELAIETA / 20

ERDIKO KAIERA

KA PLATAFORMA Kultura librearen topagunea. LIDE HERNANDO / 22

GONTZAL MENDIBIL: «1976an errazagoa zen Espainian euskaraz abestea gaur egun baino». MYRIAM GARZIA / 24

LITERATURA GORKA BEREZIARTUA MITXELENA, MIKEL ASURMENDI / 28

IHESI EUSKAL KOSTALDE GEOPARKEA Altxor karstikoa flyscharen itzalean. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

ALEA Emakumeen ekarpenak ikusarazteko. / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

ADOLFO ARAIZ: «Ez dugu kontuan hartzen gobernua Parlamentutik sostengatzea». XABIER LETONA / 39

PIRINIO ATLANTIKOETAKO BOZAK Giro nahasia politika aldaketaren atarian. MIKEL ASURMENDI / 42

KARRANTZAKO MINDEN ESKANDALUA Erantzukizunak argitu gabe daude bost urte geroago. UNAI BREA / 44

AMERIKAKO HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK «Mugimendu euskaltzalea ezagutzea senide batekin topo egitea bezala izan da». LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 46

MOZAL LEGEA ETA IRAITZ SALEGIREN KASUA Mezularia zigortu nahi du Espainiako Gobernuak. AXIER LOPEZ, LANDER ARBELAITZ / 48

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 51

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 51

NET HURBIL Urumeak eta Ebok uholdez ospatu dute Lurzoruaren Urtea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 52

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 54

LOMCEren aurrean, zer lortu du eta zer ez Jaurlaritzaren curriculumak?

Eusko Jaurlaritzak EAerako aurkezturiko curriculumak datorren ikasturtean jarriko dute martxan Lehen Hezkuntzan, eta 2016-2017an Bigarren Hezkuntzan. Zer jasotzen du curriculumak eta nola ezarriko dute eskoletan? Zein gestio eta autonomia maila ematen die ikastetxeei? Hurrengo urteetan LOMCE kentzen badute, bere horretan mantenduko al da Jaurlaritzaren curriculumak? Zein eztabaida azaleratu du prestatzen ari diren Euskal Eskolaren Legeak?

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkia: Dani Blanco

LOMCE LEGEARI aurre egiteko jaio zen Heziberri 2020, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatuta. Espainiako legearen aurrean, hezkuntza proiektu propioa garatu dutela eta arloko eragileen lankidetzak eta adostasuna handia izan dela esan digute Hezkuntza Sailatik. Prozesuan parte hartu baino, Jaurlaritzak aurkezturikoaren gainean eztabaidatu dutela kexatu dira ordea hainbat eragile eta sindikatu –ikasleen ordezkariak ez dela egon ere kritikatu dute ikasleek–, eta salatu dute LOMCEren ildo ugari bere egiten dituela Heziberri. Ikastetxeen gestio eredua, autonomia eta finantzazioa, marko pedagogikoa eta landuko diren eduki curricularrak zehaztu dituzte dagoeneko Heziberrin, eta bigarren urratsa ere eman dute: dekretuetan jaso da guztia. Dena prest dago beraz hurrengo urtetik aurrera eskoletan dekretuok aplika daitezkeen. Hirugarren urratsari ekingo diote ondoren: Heziberriren barruan garatuko den Euskal Eskolaren Legea, dagoeneko txinpartak piztu dituen. Baina goazen pausoz pauso.

Ikastetxeen gestioa eta autonomia

Kudeaketarako boterea zuzendariarengan kontzentratzen du LOMCEk, hezkuntza komunitatearen eta Eskola Kontseiluaren eragiteko ahalmena kontsulta mailara zokoratuz. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin egindako hitzarmenari esker, ordea, Eskola Kontseiluak gaur egun dituen eskumenak mantenduko ditu EAEn eta hala jaso du Heziberri.

Autonomia ere aitortzen die Heziberri ikastetxeei, baina horretarako, bere proiektua aurkeztu beharko du eskolak, eta administrazioaren esku egongo da berau ebaluatu eta baimentzea, errendimendu adierazleak erabiliz. “Autonomia positibotzat hartuko genuke, kudeaketa eskumen horiek (langileena, finantzarioa, baliabideena...) modu bateratuan ulertuko balira, eta ez proiektu jakinen ordainsari gisa, zentro bakan batzuetarako, abiadura ezberdineko ikastetxeak sortzeko arriskua baitago”, uste du Iñigo Salaberriak, eskola publiko

“Finantzazioa ikastetxeak duen proiektuaren eta lortutako helburuen arabera banatzea ez da autonomia ematea, tranpati jokatzeko da”

Ana Perez, STEILAS

koko Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak biltzen dituen Sarean elkarteko kideak. “Helburu berdinerari iristeko zailtasun eta behar handiagoak dituztenei baliabide gehiago eman beharrean, baliabideak eta finantzazioa ikastetxearen proiektuaren eta

ikastetxeak lortutako helburuen arabera banatzea ez da autonomia ematea, tranpati jokatzeko da”, dio STEILAS sindikatuko Ana Perezek.

Hezkuntzan zerbitzu publikoa bai ikastetxe publikoek bai kontzertatuek eskaintzen dutela dio Heziberri, eta hori kritikatu du EHIGE gurasoen elkarteko Lurdes Imazek, hezkuntza sistemaren lehentasuna eskola publikoari aitortu beharko liokeela iritzita. “Dekretuek ez dute planteatzen sare guztien ardura partekatua eta ikasleen zonaldekako banaketa ekitatiboa, ezaugarri, premia eta jatorri desberdineko ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko”. Ondorioz, bai hizkuntzari dagokionez, bai beharretan, aniztasunean eta maila sozio-ekonomikoan, sarri ikastetxe publikoak ghetto bihurtzen direla salatu dute.


Marko pedagogikon

LOMCE

Dezkuntzaren Legear

Deziberru

Curriculuma





Curriculumaren zati bat, LOMCEk baldintzatu

“Curriculumaren eginkizuna da bizitzarako oinarritzko diren konpetentziak eskuratzen laguntzea. Eta pertsonaren garapen integralaz gain, sozialki batzen gaituena egituratzea eta elkarbizitzaren oinarriak finkatzea”, azaldu digu Heziberriren gidaritzan aritu den kideak. Horretarako, esan digu, Euskal Curriculum eta Euskal Herrirako Curriculum hartu dituzte iturri nagusi gisa, edo hobe esanda, curriculum horien bien uztarketa den EAEko 2007ko curriculum dekretu ofiziala (ikusi ondoko orriko koadroa). Konpetentzia edo gaitasun oinarritzkoak eta zeharkakoak txertatu dizkiote, hala nola arazoei aurre egiteko gaitasuna, komunikatzekoa, ikasten eta pentsatzen ikasketak, elkarbizitzarako konpetentzia edota ekimenerako eta ekiteko espiritua –azken hau, hezkuntzaren filosofiarekin baino, enpresa munduaren eta merkatuaren ikuspegiarekin lotuegi dagoela iritzi dio STEILASEk–. Ikasgaietan, matematikak eta hizkuntzek (euskara, gaztelania, atzerriko hizkuntza) hartzen dituzte ordu gehien nabarmen, eta horiek dute lehentasuna ikasturtea gainditzeko.

LOMCE legeak curriculum eta zein neurritan baldintzatu duen galdetuta, egileek diote funtsa ez dagoela baldintzatuta: “Hezkuntza eredu, zer nolako ikasleak hezi nahi ditugun, ez da urrutitik ere LOMCERena, gurea baizik. Eta hori da gakoa. Zehaztu dugu zein motatako etxea eraiki nahi dugun, zeintzuen artean (gure irakasleak dira) eta zein materialarekin:

Ebaluazio diagnostiko eta kanpo-ebaluazioek ezinezona sortu dute. “Ikastetxeko jarduna azterketa horietara moldatzen joango delakoan gaude, lorpen maila handiena eskuratu aldera, eta horrek urteetan egindako bilakaera metodologiko pedagogikoa kaltetuko luke”, dio Iñigo Salaberria irakasle eta Sarean elkartearen kideak.

azken hori baldintzatu nahi dute, baina guk nolabait saihestu egin dugu”. Eta egia da punturen batean aurre egin diola Heziberri Espainiako legeari: LOMCERen arabera, adibidez, gazteek 14 urterekin erabaki behar dute unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren artean, eta hortik aurrera bide bereziak egingo dituzte ikasleek, baina EAEn curriculum bera jarraituko dute denek (Espainian baino ikasgai gehiago emango dituzte orotara), erabakia 16 urtera arte atzeratu ahal izateko.

Aldiz, LOMCERen hainbat agindu barneratu ditu Heziberri, eta hala azpimarratu dute Sarean, Ikasle Abertzaleak, EHIGE, BIHE, LAB, ELA eta STEILASEk, besteak beste. “Puntu askotan ‘indarrean dagoen legea’ aipatzen da, lege horrek markaturiko lorpen adierazleak bete beharko direla adieraziz, eta indarrean dagoen legea LOMCE da, beraz...”, gogoratu du Ana Perezek.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailan LOMCEk ezarritako kanpo-ebaluazio edo errebalidak, EAEn ebaluazio diagnostikoak izango direla jaso du Heziberri, eta hortaz hasiera batean ez lukete ondorio akademikorik izan beharko, baina Lehen Hezkuntzako zuzendarien kezka nagusia da hala ere: “Ikastetxeetako jarduna azterketa horietara moldatzen joango delakoan gaude –dio Iñigo Salaberriak–, lorpen maila handiena eskuratu aldera, eta horrek urteetan esfortzu handiz egindako bilakaera metodologiko pedagogikoa kaltetuko luke”. Ebaluazio diagnostikoa izan arren, irakasleek euren aurreikusten badute frogak horiek Lehen

“Hezkuntza eredu, nolako ikasleak hezi nahi ditugun, ez da LOMCERena urrutitik ere, gurea baizik. Eta hori da gakoa”

Heziberriren gidaritzaren lantaldea

Denei euskararen ezagutza maila bera eskatu beharrean, ikastetxearen inguru sozialaren arabera egiteak ghettoak sor ditzakeela salatu dute

Aurrekariak ugari curriculumetan

Soraluzen eta Orion, herrirako hezkuntza proiektuak

Euskal Curriculumari oriotarren ikuspegia txertatu asmoz, lehenengo fasea amaitu du Orioko Curriculumuma Sortzen taldeak: arlo anitzetako herri eragileekin bildu, hitz egin eta haien ekarpenak jaso dituzte. Udalak, kirol eta kultur esparruko jendeak, herriko ikastetxeek, talde feministak, gaztetxeak, aisialdi taldeak, musika eskolak, natur taldeak, dantza taldeak... hartu dute parte. Bildutako informazioarekin, herriko bi ikastetxetan Orioko Curriculumuma taxutzea dute helburu.

Soraluze biziberritzeko oinarriak jarri nahi dituen ekimena da Alkarrerekin Soraluze Eginez. Prozesu herritar horren baitan, Herriko Hezkuntza Proiektua abiatu dute, “herri-tik herrirako egindako hezkuntza proiektua”, Arantza Mata Egiguren Soraluzeko herri ikastetxeko zuzendariaren hitzetan. Hezkuntza Mahaia izeneko asanbladetan, herriko bizilagun, eragile eta elkarteak ari dira parte hartzen, eta bilerak egiten ari dira talde jakinekin (ikasleak, irakasleak, gurasoak, hezitzaileak, aisialdi taldeak, atzerritarrak...). Hartu-eman horietatik guztietatik proiektua garatu, herritarrekin emaitzaren inguruko eztabaida saio irekia antolatu eta apirila bukaerarako txostena publiko egitea da asmoa.

Euskal Curriculumuma eta Euskal Herrirako Curriculumuma, proiektu nazionalak

1996an, Ikastolen III. Batzar Nazionalan erein zen Euskal Curriculumaren hazia, Xabier Garagorri Ikastolen Konfederazioko aholkulariaren zuzendaritzapean –Heziberriren gidaritza taldean ere aritu da Garagorri–. Sortzen Ikasbatuaz eta Udalbiltza batu ziren ondoren egitaspora, eta aditu ugariaren laguntzaz, ikasleak “Euskal Herriaz eta munduaz ezagutu beharrekoa, egiten jakin behar duena eta izan behar dituen baloreak” zedarritu zituzten. 2005ean aurkeztu zuten emaitza: Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma, besteak beste Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Kristau Eskolek ere babestua. Sarean, BIHE eta EHIGE eskola publikoko eragileek, ordea, beste proposamen bat aurkeztu zuten: Euskal Herrirako Curriculumuma. “Ikuspegi sozialagoa duen curriculumuma osatu genuen, sozio-kritikoagoa, erlijioari adibidez ez diogu aipamenik egiten”, dio EHIGEko Lurdes Imazek. Bi curriculumumen uztartetatik jaio zen EAErako Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumuma, 2007an dekretu bidez onartua eta gaur arte indarrean izan dena.

Antzuolako eskolak curriculum propioa

1981ean herriko ikastola eta ikastetxe publikoa batu zirenetik, eskola bakarra du Antzuolak, “herriaren barne-kohesiorako eta eskolarentzako onuragarri”. Curriculumuma ulertzeko modu propioa daukatela diote, curriculum irekia, partaide guztien ahots, ideia eta egiteko moduak aintzat hartzen dituen. Ikastetxearen hezkuntza proiektuaren oinarri dira ikaslearen dimentsio intelektuala, emozionala eta harremanezkoa; mundua eta norbere burua ulertzeko lagungarri izango den ezaguera eta kultura irakastea; eta aniztasunari eta ikasle guztien ideiei garrantzia ematen dien giroa. Proiektua garatzeko autonomia nola lortzen da? “Borrokatuz”, erantzun digu Axun Mujika irakasleak: “Taldearen egonkortasunak garrantzi handia dauka, dudarik gabe, eta garrantzitsua da familien inplikazioa, hori lortu ahal izateko. Partaide bakoitzaren eta guztien konpromisoa, gogoia, emozioa, jakin-mina... ezinbesteko osagaiak dira. Gauzak beste modu batean egitera ausartzen garenean, aurkikuntza asko egiten ditugu, emozioz betetako aurkikuntzak. Bide horretan jarriz gero, ez dago atzerabuelarik. Horrek indarra ematen digu proiektua defendatzeko, gure lan egiteko modua argudiatzeko”.

Hezkuntzako ikasketa prozesua baldintzatuko dutela, irudikatu zein izango den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukaeran Batxilergora igaro ahal izateko ikasleek gainditu beharko duten kanpo-ebaluazioaren eragina. Izan ere, irizpide eta eduki jakin batzuk neurtuko dituen –eta kanpotik prestatuko den– makro-azterketa gainditzeko betebeharra jasotzen du Heziberrik, LOMCEk aipatzen duen “errealizazio” hitza saihestu arren. Derrigorrezko ebaluaketan maila emateko eduki horiek irakasteak tarterik utziko al du bestelakoak lantzeko? Gogora dezagun selektibitateak esaterako ez duela beste ezertarako denborarik uzten Batxilergoan. Gainera, ikasleak ikasitakoa kanpoko

probetan etengabe balioztatzen eta gainerakoekin lehiatzen behartzea ez da ebaluazio sistemarik egokiena, STEILASen hitzetan.

Erljio katolikoa eskaintzea ere derrigorrezkoa izango da, Heziberriren –eta LOMCEren– arabera. Erljioa aukeratzen ez duenak balio zibiko eta etikoei buruzko ikasgaia jaso beharko du eta bata zein bestea gainerako ikasgaien mailan ebaluatuko dira.

Hizkuntzen trataerak ere haserrea piztu du hainbatengan. A, B eta D ereduak mantenduko dira ikastetxetan, eragileek aspalditik errepikatzen duten arren A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen eta ereduaren sistema gainditu egin behar dela. Are gehiago, euskara eskakizuna

HEZIBERRI

ikastetxearen inguru sozialaren arabera egitea jasotzen du Heziberrik eta eragile ugari ez du begi onez ikusi, berriz ere abiadura ezberdineko zentroak eta ghettoak sor ditzakeelakoan, euskararen ezagutzan denei helburu bera eskatu eta horretarako behar handiagoa duten zonaldeetan baliabideak jarri orde. “Euskalduntze prozesuan aurrerapauso irmoak emateko ausardia falta ikusten dugu”, adierazi du Sarean elkarteak kideak.

Ikastoletan ere, Heziberri?

Ikastolen, Udalbiltzaren eta Sortzen Ikasbatuaz ekimenez Euskal Curriculumak garatu zuten duela hamarkada bat (ikusirik aurreko orriko koadroa). Curriculum horren garapen bat da Eki ikasmateriala eta horixe bera dute oinarri ikastolek. Maila batzuetan probatu dute eta beste adin tarteetara zabaltzen ari dira orain. “Zalantzak sortzen dira, konpetentzietan oinarritutako paradigma aldaketa handia bizi duelako irakaskuntzak, baina gutxika-gutxika aurrera goaz”, dio Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteak. Heziberrik ere, konpetentzietan oinarritutako garapen curricularra egin duela eta LOMCEren ikuspegi akademizista gainditzeko duela gaineratu du Tellituk: “Heziberriren gauzapena ikastetxe bakoitzean egin beharko da eta LOMCE ez aplikatzeko ate bat irekitzen du; guk uste dugu zabalduko ate hori baliatu dezakegula, Ekirekin jarraituz eta Euskal Curriculumak garatuz”. Onartu du, hala ere, Heziberrik ez duela LOMCE geldiarazteko adina indarrik, “eta hori nabaria da Bigarren Hezkuntzan, eta bereziki ebaluazioen arloan”. Azken finean, errebalidek irakaskuntza baldintzatuko dutela argi dago, baina errebalida horien nondik norakoak “inkognitak dira oraingoz”, dio Tellituk, Espainiako Gobernuak ez baitu oraindik ebaluazio proposamenik egin.

Espainiako hauteskundeetan PPK gehiengo absolutua galdu eta oposizioko alderdiek –behin baino gehiagotan esan duten moduan– LOMCE edo gutxienez kanpo-ebaluazioak kentzen badituzte ere, Heziberrin garaturiko dekretuak funtsean mantenduko direla azpimarratu digu Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua (ikusirik ondoko orriko elkarriketa). LOMCE bertan behera geratuz gero, funtsa ez baina pentsatzekoa da curriculumeko hainbat eduki alda litezkeela; dena den, ikastetxeen gestio eta autonomiari dagokion atalak kezkatzen

Hezkuntza Legea adosteko, publiko eta kontzertatuen eztabaida izango da puntu beroa. Eskola publikoak aldarrikatzen du lehentasuna duela; ikastolek aldiz, publikotasuna zerbitzuari lotuta ulertu behar dela

du Ana Perez, agudo egin nahi izan dutela eta horren atzeko asmoa dekretuok blindatzea dela iritzi baitio.

Euskal Eskolaren Legea, datozen urteetako erronka arantzatsua

Euskal Eskola Publikoaren

Legea atera zuen Eusko Jaurlaritzak 1993an, eskola publikoa berriro eta ikastolak sare publikoan barneratzeko. Ikastola ugari (EAEko ikastoletako ikasleek %40 biltzen zituztenak) publikatzea erabaki zuten. Egun, %50 ikastetxe publikoak dira EAEn eta %50 “pribatuak” –pribatu guztiak kontzertatuak dira, bizpahiru ikastetxe kenduta–. Europan, %10 baino ez dira ikastetxe pribatu, batez beste.

Garai berrietara egokitzeko eta hezkuntza sistema propioa eraikitzeko, hezkuntza legea beharrezkotzat dute denek. Horixe izango da Heziberriren hurrengo urratsa, bertako dekretuak abiapuntu hartuta. Eragileek argi dituzte legeak jaso beharko lituzkeen erronka nagusiak: hala nola, ikastetxeen autonomia arautzea, irakaslearen egonkortasuna ahalbidetzea, euskararen ardaztutako sistema eleanitza egituratzea –egungo ereduaren sistema gainditzuz–, konpetentzietan oinarritutako curriculumak islatzea, eta ikaslearen aukera berdintasuna eta inklusibitatea bermatzea.

Puntu beroa publiko eta kontzertatuen arteko eztabaida izango da, zalantzarik gabe. “Ikusten dugu Legean ez dagoela asmorik eskola publikoaren ardatza izateko eta hala behar luke. Badirudi administrazioak ez duela sinesten eskola publikoan; EAEn daukagu eskola publiko portzentaje txikiarekin eta ezinbestekoa da gizarteak erabakitzea herri honetan nahi al dugun eskola publikoa izatea hezkuntza sistemaren ardatza ala bigarren mailako eskola –adierazi du EHIGE guraso elkarteak bozeramaileak–. Funtsezkoa da sarean arteko ardura partekatua, Lege barruan finantzazio gehiago eskatuko dutelako ikastetxe pribatuak, baina ezin da hori egin eta behar berezi guztiak eskola publikoan kontzentratu”. “Sentitzen dugu ikastolaren apustu handiagoa egiten duela administrazioak, eskola publikoaren baina”, gaineratu du STEILASeko bozeramaileak.

Legalki egonkortasuna emango dien araudiaren aiduru daude ikastolak eta kristau eskola. Publiko zer den definitzea, hori ikusten du gakoak Ikastolen Elkarteak lehendakariak: “Hezkuntza sistemako ikastetxeen erdiak baino ez du legea eta garrantzitsua da hezkuntza sistema osoarentzat lege bat iza-



Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteak zuzendariaren arabera, “Heziberriren gauzapena ikastetxe bakoitzean egin beharko da eta LOMCE ez aplikatzeko ate bat irekitzen du; zabalduko ate hori baliatu dezakegu, Euskal Curriculumean oinarritzen den Eki ikasmaterialarekin jarraitzeko”.

Cristina Uriarte, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua

«Heziberriko Curriculum dekretuak, hauteskundeetako emaitzak gorabehera, funtsean mantendu egingo dira»

Espainiako hauteskundeak emaitzaren arabera etorkizunean LOMCE edo kanpo-ebaluazioak kenduko balira, Heziberriko dekretu batzuk aldatzeko aukera legoke?

Dekretuetan garrantzitsua da bi irizpide uztartzeko egindako aha-legina: berme juridikoa ziurtatzea batetik eta Espainiako Estatuak ezartzen duen oinarritzko araudia saihestea bestetik. Estatuak ezarri asmo dituen errebaliden aipamenik ez da egiten dekretuan eta artikulatua baliagarria da bai LOMCE-rekin bai hura gabe. Orain arte gure hezkuntza sistemak garatu dituen lorpenak mantentzen edo indartzen dira dekretuetan (autonomia edo aniztasunaren gaitan, adibidez). Beraz, Heziberri Planean garatu diren Curriculum dekretuak, hauteskundeetako emaitzak alde batekoak ala beste-koak izan, funtsean mantendu egingo dira.

Hezkuntza arloko eragile gehienek desadostasuna du Heziberri. Nola baldintzatuko du horrek EA-erako curriculumaren etorkizuna?

Orain arte, EA-en dekretuak garatzeko egindako saiakeretan ez da prozesu honetan bezainbesteko parte-hartzerik izan. Adostasun

“Eskumena badaukagu, eta nahikoa; beste gauza bat da Espainiako Gobernuak noraino urratzen dituen gure eskumenak”

maila ia erabatekoa izan da hezkuntza eredu pedagogikoan, eta eragileen ekarpen gehienak dekretuen artikulatuan uztartu dira. Uztartu ez direnak, gehienak dira beste araudi batzuetan finkatzen direlako, dekretu hauen garapenak direlako edo Hezkuntza Legean sartuko direlako. Ohikoa da, dena den, desadostasunak adostasunak baino gehiago azpimarratzeko joera, arrazoi ezberdinengatik. Gainera, desadostasun handienek Estatuak ezarri duen eta gure eskumenak mugatzen dituen oinarritzko araudiarekin dute zerikusia. Hala ere, muga hauek ez dira oraingoak eta beti jakin izan dugu oztopo horiek gainditzen.

Euskal Eskolaren Legea izango da hurrengo urteetako erronka handia. Sindikatu batzuek salatu dute ikasketxe kontzertatuen onurarako eta eskola publikoaren kalterako izango dela.

Gure hezkuntza sistema aztertzen badugu, logikoa da hezkuntza sistema osoa batuko duen legea izatea, ez du inongo zentzurik sistemaren erdia kanpoan uzteak. Azken finean, sare publikoak eta kontzertatuak, bakoitzak bere ezaugarriak galdu gabe, sistema bateratua osatzen dute. Aipatu dituzun salaketek ez dute oinarri-rik, Heziberrin ez dago inolako lorratzik horrelako susmoa pizteko. Alderantziz, dekretuak bermatzen ditu ekitatea mantentzeko eta areagotzeko orain indarrean dauden neurriak. Ekitatearen printzipioa euskal hezkuntza sistemaren ezaugarri sendoenetakoa da eta ez



DANI BLANCO

dugu inolaz ere zalantzan jartzeko asmorik.

Lege berriak alderdien adostasuna lortuz gero, bermea litzateke Espainian erabakitzen diren hezkuntza legeekiko autonomo jokatzeko?

Alderdien adostasuna lortzea oso garrantzitsua litzateke, eta beharrezkoa. Adostasuna zenbat eta zabalagoa izan gure artean, hezkuntza sistemaren sendotasuna orduan eta handiagoa litzateke barrura begira, eta indartsuago azalduko litzateke oinarritzko araudiaren aurrean. Horregatik, kome- ni da alderdien ikuspegi partikula- rren gainetik guztiok elkartzen gaituen begirada zabala izatea. Eskumena badaukagu, eta nahi- koa; beste gauza bat da Espainiako Gobernuak noraino urratzen dituen gure eskumenak.

tea. Zein hezkuntza sistema publiko nahi dugun eztabaidatzea oinarritzkoa izango da: guk aldarrikatu dugu publikotasun berri bat, ez titulartasunari lotua baizik eta zerbitzuari, eta oinarri horri lotuta, finantzazio sistema berri bat. Gatazka sortuko da, planteamen- duetan ezberdintasun nabariak daudelako eta

hezkuntza ereduok lan bat egin beharko dugu, argi ipinita bakoitzak non dituen bere marra gorriak eta noraino hurbildu gaitez- keen denon artean. Ea guztien artean gure publikotasun sistema ezartzeko gai garen, gaur duguna Espainia eta Frantziako sistema publikoaren kopia delako”. ■

ASKOA ETXEBARRIETA

«Egunero borrokatzeko motibazioa eman dit flamenkoak»

Flamenko dantzaria da Askoa Etxebarrieta Lasheras “La Pulga”. Arkakuso da ezizenez, baina zinezko plazandrea agertokian dantzan esku-zartaka denean.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Bialystok-era (Polonia) joatekoa zara, flamenkoa aitzakia.

Bai, internazionala da flamenkoa. Joaten zaren lekura joaten zarela ere, hantxe flamenkoa! Montrealen ikastaroa gidatuta nago, esate baterako, eta flamenkoa egiten zuen taldea ere aurkitu nuen, eta emanaldiak egin genituen. Mundu osoan zabalduta dago flamenkoa. Nire kasuan, flamenkoa ikasi nahi izan nuenean Granadara joan nintzen. Bane-kien Andaluziara joan behar nintzela, flamenkoa ondo ikastekotan. Bada, hara joan eta kanpoko jende mordoa ikusi nuen, flamenkoa ikasi nahian: amerikarrak, japoniarrak... Horrek erabat harritu ninduen, zeren eta hemen, Euskal Herrian, ez zegoen horrelako afiziorik. Aldiz, Granadara joan eta bazter guztietako jendea, flamenkoa ikastera joanda! “Tira, ez nauk ni flamenkoa ikastearren dena utzi duen zoro bakarra!”. Batzuk ziren gitarra, beste batzuk dantzari... eta denak, ni baino urrutia gotik joandakoak hara.

Zu ez beste euskaldunik bazen flamenko ikasten Granadan?

Nerea bat bazen, Bilbokoa, eta besteren bat. Eta ni. Euskaldun gutxi Granadan flamenkoa ikasten. Eta Sevillan ere gutxi izan ginen... Baina badira. Mutilik, aldiz, ez dut ezagutu flamenkoa ikasten ari denik, ez Granadan, ez Sevillan, ez Madrilan. Hala ere, Euskal Herrian ere badira flamenkoa dantzatzuten mutilak. Pare bat, Bilbon, nonbait.

Harrigarria ere bada. Andaluziarrak makina bat dira Euskal Herrian...

Beraien artean bai, zabaldu dute flamenkoa, baina besterik ez. Lehen, behintzat, Andaluziako etxeetan eta horrelakoetan baino ez zuten egiten. Ikastaroak, eskolak... beren bazkideei zuzentzen zizkieten, kanpora zabaldu gabe. Nire ustez, hobe zuketzen gehiago zabaldu izan balute. 80ko hamarkadan, edo 90ekoan, Euskal Herriko egoera orain ez bezalakoa zen, flamenkoa ere ez zen orain bezain ezaguna, eta bestalde, Espainiari lotuegi agertzen zen, eta horrek, nahitaez, arbuioa eragiten zuen, neurri batean. Uste dut hemengo andaluziarrak garai hartan flamenkoa zabaltzen saiatu izan balira, ez zuketela harrera onik izango, eta alde batetik ulergarria zait: berrogei urtean txapela jaten ibili izan bazaizkizu, ezin bada normal onartu. Baina, bestalde, egia da flamenkoa artea dela, Afrikako edo Brasilgo musikak diren bezala, eta beraz, aurreiritzi horietatik urrundu behar

NORTASUN AGIRIA

Askoa Etxebarrieta Lasheras (Gasteiz, 1976) flamenko dantzaria. Arabako Apodaka herriko ermitatik jaso du izena. Balet klasikoa landu zuen neska koxkorretan eta, geroago, gaztetan ekin zion flamenkoari. Ekin, eta jarrai. Ez dio harrezkero utzi. Duela aldi bat, ikerketan abiatu zen zenbait lagunekin batera –ez alferrik, *La Pulga eta lagunak* osatu dute taldea–, eta txalaparta, perkusioa, gitarra eta ahotsa batu ditu *Berriketan* izeneko flamenko ikuskizunean. Gasteizen du egoitza, baina munduan barrena ibili ohi da dantzari. Askoa euskalduna, flamenkoa buruan, eta ibili munduan.





da flamenkoa. Horretan, Francok kulpia handia izan zuen. Kalte handia egin zion flamenkoari. Hark flamenkoa eta Espainia lotu zituen, flamenkoa eta “ole!”, flamenkoa eta zezenak, eta gainerako guztia. Horrek batere onik ez zion egin flamenkoari. Are gutxiago Euskal Herrian.

Eta orain, irauten du aurreiritziak?

Nire ustez, orain garai ona da flamenkoarentzat Euskal Herrian. Gero eta saio gehiago programatzen dira, gero eta jende gehiagok du interesa, gero eta hobeto bereizten dira flamenkoa eta haren inguruko aurreiritziak... Ni Euskal Herrikoa naiz, euskalduna naiz, flamenkoa gustatzen zait, baina ez naiz espainola.

Zu espainola ez, zu La Pulga zaitugu...

Flamenco dantzaria, 1976an Gasteizen jaioa, txikitan –10 urte nituela– balet ikasten hasi nintzena. Lehenengo, akademiaren batean ibili nintzen eta gero dantza kontserbatorioan ikasi nuen, laugarren ikasmaila arte. Ondoren, 15 urte, eta utzi egin nuen, adoleszentzia: beste gauza batzuk ere egin nahi nituen,

Berriketan

“Nire flamenko ikasle baten bidez ezagutu nituen txalapartariak. Haiek flamenkoari loturik zerbait egin nahi zuten. Nik, txalaparta nahi nuen nire emanaldietan. Elkar ezagutu, hitz egin, eta *Berriketan* proiektua lantzeari ekin genion, txalaparta, perkusio-jolea eta hirurok. Handik laster, gitarra ere behar genuela konturatu ginen, gainerakoan perkusio larregi zegoelako. Ondoren, abeslaria ere sartu genuen. Horrela egin dugu, astiro-astiro”.

lagunekin irten eta beste. Zortzi urte batere balet egin gabe egon nintzen. Dantza garaikidea ere egin nuen geroago, baina ez ninduen harrapatu. Azkenean, 1998an, flamenkoa ezagutu nuen Zaramazulon [2009ko otsailaren 24an itxi zuen lokala Guardia Zibilak]. Gustatu egin zitzaidan txalo korrua, bata dantzan hastea, bestea kantuan... Hango energiak harrapatu ninduen. Ondoren, ikastaren bat egin nuen Rosa Lahozekin Gasteizen bertan, eta, udan, 2001ean, Granadara joan nintzen ikastaro trinkoa egitera. Hantxe konturatu nintzen benetan flamenkoa ikasi nahi banuen Andaluziara joan behar nintzela. Beraz, hona itzuli, egiten nuen lantxo bat utzi, mutil-laguntzua ere utzi... Dena utzi eta joan nintzen.

Granadara lehenengo, Sevillara gero...

Bai. Ikastaro trinkoa egitera joan eta Granada ezagutu nuen, bertako giroa, lagunak egin nituen, irakasleak ezagutu... “La Presi”, esate baterako, bizian izan dudana irakasle onenetakoa, baina puskaiz gainera! Hila da... Makina hutsa zen! Zenbait urte egin nituen han eta, gero, Granada txikia egin zitzaidala konturatu nintzen: lauzpabost irakasle besterik ez dago han. Orduan, Sevillara joan nintzen, hango eskola diferentea baita: gorputza, besoak... lantzen dituzte Sevillan, eta nik horixe nahi nuen. Launa urte egin nituen Granadan eta Sevillan. Bitartean, Euskal Herrira ere etortzen nintzen, dirua gastatzen zitzaidanean: hiru bat hilabetea taberna batean eta besteetan lana beltz egin, dirutxoa aurreztu eta Andaluziara berriro!

Ikastera...

Gehiago ikastera. Behin ere ez duzu ikasten amaitzen, baina oinarri sendo bat izan, behintzat. Gero gerokoak! Oinarria baldin baduzu, hasi zaitezke dantzan musikariekin batera, badakizu zein den dantzaren egitura... Orain ere, esaterako, eta kuartel nagusia Gasteizen baldin badut ere, Madrilerara joaten naiz bi hilabeterik behin, aste bateko ikastaro trinkoa

egitera, gehiago ikasteko asmotan. Ikastaro horiek ikaragarri motibatzen naute. Madrilen flamenko giro handia dago, Gasteizen ez bezala. Hemen, ikastaroetara etortzen zaidan jendeak hobya du flamenkoa, ez dute dantzari profesionala izateko asmorik. Madrileko ikastaroetan biltzen garenok, berriz, horixe nahi dugu, dantzatu, emanaldiak egin, ikuskitzuna muntatu: giroa oso da ezberdina. Jendeak serio eta beltz egiten du lan, nahiz eskolan, nahiz eskolaz kanpo.

Zer zioten gurasoek zure flamenko zaletasunaz? Flipatu egiten zuten! Ama, harri eta zur. Aitak: “Zuk euskal dantzak ez, baina flamenkoa bai!”. “Horixe gustatzen zait eta!”. Hala ere, hori hasieran izan zen. Orain ahal duten guztietan etortzen dira ni ikustera, gustatu ere egiten zaie flamenkoa, eta konturatu dira flamenkoa ez dela beraiek pentsatzen zuten gauza. Ama, adibidez, behin Sevillara etorri zitzaidan izekorekin batera. Sevillara joan nintzenean, etxe okupatu batera jo nuen: Casas Viejas zuen izena. Hara jo eta flamenko tailerra emango nuela esan nien. Horrela, okupa giro hartan zebilen jendea ezagutu nuen, eta gizarte mugimenduetan lanean ari zena. Han, flamenkoak protesta hitzak ere bazituela ikasi nuen, alternatiboa ere bazela flamenkoa. Ostegunetan, esaterako, El Pumarejo izeneko plazara joaten ginen, bertako gizarte etxera, biltzen ginen zahar eta gazte, denok borrokalari xamarrek, eta hori gure amari ikaragarri gustatu zitzaion. Orduan konturatu zen ama flamenkoa ez zela berak uste zuena, flamenkoa izan litekeela protesta. Izan zaitezke flamenko dantzaria eta Etxebarrieta, eta euskalduna, edo ez euskalduna. Izan ere, borrokalari asko ezagutu ditut nik flamenkoaren inguruan, kapitalismoaren kontra, sistemaren kontra daudenak. Badira flamenko batzuk sistemaren alde daudenak, eta beste batzuk kontra. Euskal Herrian eta euskaldunen artean bezala.

Entseguak

“Alfergura ematen dit entseatzen hasteak, baina entseatu eta gustura baino gusturago sentitzen naiz. Bukatu eta ‘hau poza! Egin dut’. Ateratzen ez zaizkizun gauzak landu eta ateratzen zaizkizula ikustean, poza. Borroka bat da, egunerokoa, zeure burua hobetzeko, gainditzeko zera bat. Eta hura lortzen duzunean, poza, eta beste helburu batzuen bila abiatzea”.

Balet klasikoa egiten hasi zinen...

Eta asko gustatzen zait oraindik ere. Baina oilanda gazte nintzen, eta utzi egin nuen balet klasikoa. Eta utzi eta bi urtera, balet ikaskide izandakoak ikustera joan nintzen, eta hura negar makakorroa nik! Arinkeriagatik utzi nuen baleta, eta institutuko ikasketen zama-gatik: goizean institutura, bazkaldu, eta ziz-tuan balet egitera, egunero hiru ordu. Dena dela, balet klasiko dantzaria izateko aukera izan banu, hori ere izango nintzatekeen!

Bada alderik, hala ere, balet klasikoaren eta flamenkoaren artean.

Bai, bai. Hogeita hamabosten bat urte dituzunean ezin duzu balet klasikoa dantzatu. Alegia, ez dago adin horretan hartuko zaituen konpainiarik. Aldiz, flamenkoa dantzatzeko mugarik ez duzu. Bestalde, balet klasikoa oso arautua dago, legeak oso estuak dira: ezin duzu besorik lekutik kanpo ibili, adibidez, akats larria delako. Flamenkoan, berriz, bada jarrera bat, badira zenbait lege, baina *bailaor*-etan bakoitzak bere energia du, eta horrek asko janzen du flamenkoa. Balet klasikoa ikusi, eta emanaldi guztiak antzeko xamarrek irudituko zaizkizu, lehenengo dantzariak gorabehera, gisa berean ariko baitira. Flamenkoan ez da horrelakorik. Norberaren energiak askoz ere garrantzi handiagoa du. Hargatik dago hainbeste *bailaor*, eta ez dago bata bestearen berdinik.

Berdinik ez, eredurik bai.

Eredurik, idoloak... Carmen Amaya bat, esaterako. Hura emakume puska, hura *bailaor*-a. Gainera, zapateatzen hasi zen lehenbiziko emakumea izan zen. Ordu arte gizonezkoek baino ez zuten zapateatzen. Emakumeek beso mugimenduak eta gisakoak egiten zituzten, gizonezkoak zapateatzen eta esku-zartak aritzen ziren bitartean, jarrita. Carmen Amaya zapateatzen hasi zen lehenengo emakumea izan zen, eta, bestalde, gizonezko

www.bertsozale.eus

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

2015

BURLATA
Kultur Etxea
Martxoak 15, 17:30

FINALAURREKOAK

ENEKO LAZKOZ

OIER LAKUNTZA

OSKAR ESTANGA

MIGEL MARI ELOSEGI "LUE"

SAIOA ALKAIZA

ARITZ SARAGUETA

argia

Askoa vs. La Pulga

"Askoa Etxebarrieta neska normal bat da, bere borrokak dituen, une onak eta txarrak... Guztiok bezala. La Pulga, berriz, *bailaor*-a da, agertokian halako harrokeria bat ateratzen duena, 'hemen nago ni!' esaten duena, 'gustatzen zaionari, ondo; gustatzen ez zaionari, bost!'. Askoak ez du horrelako grinarik eguneroko bizimoduan".



askok baino hobeto egiten zuen. Makina hutsa zen! Harrezkero ez da sortu haren hankak dituen inor. Dantza egiteko prakak jantzi zituen lehenengo emakumea ere izan zen. Camarón kantuan izan dena, horixe izan zen Carmen Amaya dantzan.

La Presi, makina hutsa. Carmen Amaya, makina hutsa. Eta Askoa Etxebarrieta, La Pulga?

Ez dakit, bada... Niri asko gustatzen zaizkit hankak. Horixe dut nire alde: asko entseatzen ditut hankak, badut abiadura, nahiz eta zer landu handia dudan oraindik. Bestalde, besok mugitzea-eta gutxiago gustatzen zait, eta hortik ere badut zer ikasi franko. Izan ere, ni *soniquete*-ak harrapatu ninduen, erritmoak, oinen erritmoa konpasean... gauza horiek gustatu zitzaizkidan, eta badakit dantza egiten dudanean igartzen zaidala.

Eta nola iritsi zara zure flamenko emanaldietan txalaparta eta gitarra espainola ere sartzera?

Ez gara lehenak izan txalaparta eta flamenkoa fusionatzen. Guk baino lehen Chua Albak ireki zuen bidea. Granadako da, baina dantza akademia izan zuen Bilbon. Gu harago joaten saiatu gara. Ikerketa egin dugu eta Chua Albak baino protagonismo handiagoa eman diogu txalapartari, gai guztietan sartu dugu, benetako protagonista egiteraino. Eta, gaur egun, ez dut ikusten guk egiten dugun moduko ikuskizunik. Hori bai, asto lan bel-

Amaierarik ez

"Orain berriro boladan dago dindirri mantala, folklorikoek janzten duten janzki hori. Hasieran, ez zitzaidan gustatzen. Oin mugimendua gustatzen zitzaidan. Orain, berriz, dindirri mantala jantzi eta dantza egiteko gogoz nago. Esan nahi dut, bidea egiten duzula, eboluzionatu, gauza berrien bila jo... inoiz bukatzen ez dena".

durgarria izan da, asteburu trinkoak buruan ilea baino gehiago joan zaizkigu lanean, hau eta hura pentsatzen, saiatzen, hitzak asmatzen...

Hitzak ere zuek idatziak dira.

Horretan ari gara. Eta batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz nahi ditugu. Tira, hasteko, badugu tango bat euskarazko hitzak dituen. Geuk eginga. Horretan saiatzen gara beti, gauzak geuk lantzen. Hurrengo asteburuan ere lanaldi trinkoa egingo dugu. Asto lana da, esan dizut, baina ikaragarri gustatzen zaigu denoi.

Zer eman dizu flamenkoak?

Gauza asko. Lanbidea, egunero borrokatzeko motibazioa, helburu bat... Neure bizitza! Egunero entseatzen dut. Indar handia eman dit, ilusio ikaragarria. Bizitzan super inportantea da motibazioa izatea, honetarako edo hartarako. Flamenkorik egingo ez banu, tabernaren batean ariko nintzateke lanean seguruenera, asebeteko ez nindukeen lanean.

Hunkitu egin zara...

Bai... Oso ondo sentitzen naiz flamenkoa dantzatzen, eskolak ematen. Zorte handia dut, asko gustatzen zaidalako egiten ari naizena. Gustuko lanean ibiltzea, bestelako lan batean jardun beharrik ez izatea, asebetetzen nauen eginkizunean... zorte handia da. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

SOFIA BORROKAN ARI DA "B" DOKTOREAREN AURKA

"B" kontabilitatea, BEZik gabeko salmenta-kanpainak eta "black" txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Sofia ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.



Kamera
ezkutuaren
bideoa

◀ Sofia Pérez (Donostiako taxilaria)



"A" gizartea lortzeko

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara

www.ekonomiagardena.eus

#ekonomiagardena





Gipuzkoa
BERRIA

MATXISMOA KIROLEAN

Berdintasuna ipurdiz gora

Podiumeko azafata baten ipurdia; tratu txarrak justifikatzen dituzten kantak; eta homofobia borrokatzea xede duen egitasmoa. Kirolean ere, urrats asko falta da matxismoa desagerrarazteko.

| JON TORNER ZABALA |



Flandriako lasterketaren kartel polemikoa, eta inspirazio iturri izan dituen “bromak”.

PODIUMEKO AZAFATEN egitekoak eztabaida berria eragin du, Flandrian egiten den E3 Harelbeke txirrindularitza probaren kartel ofizialak hauspoturik oraingoan. Irudian ageri dira neska horietako baten ipurdia –kulero urdinarekin–, eta hurbiltzen ari zaion ziklistaren eskua. Inspirazio bezala erabili dute 2013an Harelbeken bertan Peter Sagan eslovakiarrak egindakoa, azafata bati ipurdia ukitzeko keinua egin zueneko. Horrekin nahikoa ez eta hamar egun geroago, Flandriako Tourreko podiumean keinutik ekintzara igaro zen. “Ez zen nire asmoa emakumeak iraintzea; broma bat besterik ez da”, adierazi zuen txirrindulariak. Barre gutxi, baina. Irainduak sentitu ziren orduan eta irainduak sentitu dira orain, baita gizonetzko asko ere. Ez da gutxiagorako.

Hainbat lagun, Historian doktore Maria Castejón esaterako, protagonisten generoa trukatzek sortuko lukeen erreakzioaz mintzo dira: “Zer gertatuko litzakete emakumezko kirolarien alboan mutil katxarroak agertuko balira? Ipurdia publikoki ukituz gero

jendeak esango luke lizun hutsa dela, puta samarra. Desberdintasun handi bat dago, gainera. Neskek, oro har, ez dute pentsatzen inguruan duten edozein gizonengan halakorako eskubiderik dutenik”. Txirrindularitzan aditu Paloma Castroren hitzetan, bestalde, emakumezko irabazleei sariak “mutil lerdin eta maitagarriek” emango balizkiete, eta ez 50 urtetik gorako tokian tokiko agintariak, neska gehiagok jarraituko lukete kirol hori. Hala balitz ere, ez dugu uste podiumean ar-eme paperak trukatzeko litzatekeenik matxismoa borrokatu eta egoera iraultzeko gako nagusietakoa.

Azken urteotan podiumeko azafata bezala lan egin duen Magalie Thierry frantziarrak onartu du lasterketa amaitu osteko zeremonia jende bati “antigoaleko samarra” iruditu dakiokeela, baina gehitu du ikusle gehienek maite dutela, “amets bat” bete zuela Frantziako Tourrean aritu zenean, eta kirol jarduerari “feminitate ukitua” ematen diola haien presentziak. Aitzitik, Laura Weislo Cyclingnews.com webguneko editoreak argi

«Putá bat zen, ongi egin zenuen»



INDARKERIA MATXISTARI gorazarre egiten diote Sevillako (Andaluzia) Betis futbol taldeko ultrek, haien taldeak etxean jokatzeko duen aldira. Euren kantuekin Rubén Castro jokalaria animatu nahi dute, bikotekide ohiari emandako tratatu txarren-gatik auzipetua dagoena –Sevillako Fiskaltzak bi urteko espetxe zigorrak eskatu du–, bost salaketa medio. Zer gutxiago, taldeari hainbeste eman dion “mitoari” txalo eta biba solidarioak eskaintzea baino.

Izugarria da letra: “*Rubén Castro ale, Rubén Castro ale, no fue tu culpa, era una puta, lo hiciste bien*”. (“Rubén Castro ale, Rubén Castro ale, ez zen zure errua izan, puta bat zen, ongi egin zenuen”). YouTubean duzue bideoa okagai (otsailaren 8koak dira bolo-bolo zabaldu diren irudiak).

Espainiako Indarkeriaren Aurkako Batzordeak proposatu du ultrak biltzen dituzten harmailak ixtea,

gaur arte sekula egin gabeko zerbait. Albiste agentziek jakinarazi dutenez, Espainiako Futbol Federazioaren Lehiaketa Batzordeak hila-ren amaieran erabakiko du harmailak ixteko aginduko duen, ala Betis taldeari espediente ireki eta alegazioak eskatuko dizkion. Bigarren hautua, gaiari buruz herritarrek duten iritzia aintzat hartuta, “zentzurik gabeko atzerapen gisa” interpretatuko litzateke, agentziek diotenez. Atzerapena, zentzu guztietan.

Ortzadar koloreko sokak, homofobiarik gabeko futbolaren alde

Rayo Vallecano (Madril) futbol taldeko jokalariek ortzadar koloreko sokak eraman zituzten euren zapatiletan, otsailaren 22an San Mamesen jokatu zuten partidaren, Espainiako Estatuko Gay, Lesbiana, Transexual eta Bisexualen Federazioaren (FELGTB) *Homofobiarik*

gabeko futbolaren alde kanpainaren baitan.

“Futbola komunikaziorako tresna da, bozgorailu gisa balio dezakeena askatasuna, berdintasuna, errespetua edota integrazioa aldarrikatzeko”, dio Rubén López FEGTB federazioko Kirol arloko arduradunak. Kanpaina horrek Stonewall UK erakundeak Erresuma Batuan egindakoa du ardatz. Hainbat talderen babesa izan zuen egitasmoak, Arsenalena tartean.

FEGTBren helburua da horrelako urratsekin “apurka-apurka homofobia estadioetatik kanporatzea”. Ea hala den, Kirol erakundeak, dena den, ez dirudi prestuegi daudenik. LFPG babesa azaldu dio erakunde bezala edozein egitasmo sustatzeari. Kirol Kontseilu Gorenak (CSD), bestalde, oraindik ez dio FEGTBrekin biltzeko gonbiteari baiezkorik eman.

du neskek laga egin behar diotela arrakastadun gizonezkoen “dekorazio hutsa” izateari: “Txirrindularitza profesionalari dagokionez, hedabideek erakusten dituzten emakume bakarrak podiumeko modeloak dira. Kirol arloko desberdintasunak handitzen ditu horrek”. Ikusgarritasuna eta tratamendua, horra gakoetako bi, arrazoi sakonagoetan murgildu gabe.

Saganen balentriak kasu isolatuak diren arren –guk bederen ez dugu besterik gogoratzeko–, gero eta zale gehiagok eskatzen du podiumeko azafaten egitekoa birplanteatu dadila, modu leun batean esatearren. Etapak

amaitzen diren herriko edo inguruko ziklista gazteak jarriko genituzke guk atleten ezker-eskuin, lasterketak musu-truk antolatzen dituzten boluntarioak, itzalean lan egiten duten horiek. Marka komertzialek eta ekitaldiak diruz laguntzen dituzten gainerako eragileek, ordea, argazki ponpoxoak bilatu ohi dituzte.

Gutxien gutxienez, H3 Harelbeke lasterketaren antolatzaileek erabaki dute kartel polemikoa publizitate euskarri guztietatik kentzea, UCI Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak desadostasuna azaleratu eta gero. ■



**June
Fernández**



KAZETARIA

Greyren 50 itzalak eta feminismo ortodoxoa

FACEBOOKEN BIDEZ mezu hau hedatu da: “*Greyren 50 itzalak* gustuko dut...”. Feminista batek ez luke hori sekula esango”. Amorratu ninduen. Posible da feminista izatea eta *Greyren 50 itzalak* trilogiarekin gozatzea? Nik ez ditut liburuak irakurri, ezta pelikula ikusi ere, baina erantzuna argi daukat: bai borobila. Irakurri dudana- ren arabera, rol sexistetan oinarrituta dago istorioa. BDSMa (*bondage*, lotzeko artea, nagusitasun eta mendekotasun jolasak eta sadomasokismoa) ez da berez sexista, arazoa da jolas erotikoen rolen eta eguneroko bizitzaren arteko jarraitasuna. Anastasia eta Greyren harremana zeharo desorekatuta dago: gizona nagusiagoa da, sexualitatean eskarmentu handikoa, bote- re ekonomikoduna; neska, ikaslea, birjina, txolina. Hortaz, Greyren paper dominan- tea ohetik haratago doa.

Ez dut elitismo intelektualak gustuko. Jende gehienak “best-sellerak” eta zabor-telebista erabiltzen ditu garunari deskantsua emateko. Telesail tuntunak ikusten baditut, tuntuna naizela dioen epaia harroputza iruditzen zait


Feminista izateak berdintasun falta hori identifikatzea bermatzen du eta horrelako harremana eredugarria ez dela pentsatzea. Horregatik da hain garrantzitsua arrakasta duten kultura produktuen analisi feministak hedatzea. Ianire Estébanezek bikain egin zuen bere garaian Stephenie Meyerren *Twilight* nobela sorta egokitu zuten pelikulekin. Neska gazteek pelikula horiek ez ditzaten ikusi saiatu baino, lagun dezagun euren kritika gaitasuna garatzen. Hala, *Twilight* edo *Greyren 50 itzalak* ikusterakoan, ez dira Anastasia eta Bella-rekin identifikatuko; ez dute Grey edo Edward euren printze urdin bihurtuko; ez dute pentsatuko emakume izateagatik mendekotasun rola bete behar dutela eta gizonen fantasiak asetzea ez da izango euren

xede erotiko nagusia. Arrakasta duten pelikula, telesail, liburu eta kantak aztertzea berdintasunaren aldeko sentikortzerako ariketa bikaina da, maitasun harreman toxikoei edota indarkeria sinbolikoari buruz hitz egiteko era eraginkorra.

Ez dut elitismo intelektualak gustuko. Jende gehienak *best-sellerak* eta zabor-telebista erabiltzen ditu garunari deskantsua emateko. Telesail tuntunak ikusten baditut, tuntuna naizela dioen epaia harroputza iruditzen zait. Gran Hermano VIP eta *¿Quién quiere casarse con mi hijo?* bezalako saioek audientzia handia daukate, baita Hego Euskal Herrian ere. “Horren ordezk dokumentalak ikusi itzazu” esan baino, eraginkorragoa litzateke saio horien kaltea ulertzeko gakoak ematea, eta beste arrakasta ereduak ere hedatzea, gazteen bizi helburua *Mujeres, hombres y viceversa*ko “tronista” bilakatzea izan ez dadin.

Bestalde, ortodoxia intelektual horren exigentziaren harira, nik kontraesanak aldarrikatzen ditut. Nire Twitter profi- lean, Emma Goldman jarraituz, esaten dut: “Ezin badut *perreoan* egin, hau ez da nire iraultza”. Zaletasunak anitzak eta konplexuak dira. Egia da: reggaetoia dantztatzea gustuko dut, baita batxata, hip- hopa eta arin-arina ere. Horrek ez nau feminista edo musikazale kaxkarra bihurtzen. Reggaetoiaren erritmoa gustuko dut eta dantztatze-ko era lotsagabe horrek euskaldunok gorputzarekin (gurea eta besteena) dugun harremana erlaxatzeko aparta dela uste dut. Feminista naizen neurrian, letra asko iraingarriak direla ohartzen naiz. Irtenbidea? Letra ez sexistak dituzten kantak aukeratu (egon badaude) edo kanta horiei iseka egin.

Eta burbuila ortodoxo batean bizi baino, pentsa dezagun *Greyren 50 itzalak* filmak zergatik sortu duen horrenbeste ikusmin. Esaterako, aprobetxatu deza- gun BDSM feministak edota emakumeek sortutako pornografia ez sexista ezagu- tzera emateko. Ez dezagun feminismoa aparteko kluba bihurtu; gizar- tean errotu- tako mugimendu erakargarri bezala sen- dotu dezagun. ■



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXANEKO KIDEA ♦



INIGO AZKONA

AHTren kontrako berba

ERRI DE LUCA. Italiako idazle eta poeta tribunaletara eraman dute. Bere aurka LTF enpresa frantsesak (Lyon-Turin Ferroviaire) salaketa jarri du egindako adierazpen hauengatik: “AHT saboteatuko da... Horretarako balio dute zizailek, hain zuzen: erabilgarriak dira oso, hesiak ebakitzeko. Terrorismorik bat ere ez. Oso beharrezkoak dira AHT obra kaltegarri eta alferrikakoa dela ulertarazteko” (*Huffington Post*). AHTren obrak aurrera doaz Italiako Val di Susan, ehunka polizia eta militarren zaindaritzapean. Gobernuarekiko solasaldiak eta bitartekaritza guztiak bukatu direnean ez da beste biderik geratzen, bere ustez.

SABOTAJEA. Salaketan Marco Rettighieri enpresako zuzendariak dio idazlea iraganean “legaltasunaren mugetan” zeuden mugimenduetan (Lotta Continua) ibili zela eta politika demokratikoaren hiztegian sabotajeak ez duela sartzetik, tresna eragile legitimotzat. Leporaturako iritzi delituak urte batetik bosterako zigorra dakar. Bere buruaren defentsan, De Lucak dio sabotajeak ez duela esanahi bat eta bakarra, ministerio publikoak exijitzen duen moduan. Eta liburuxka bat idatzi du: *La parola contraria* (Feltrinelli; gaztelaniaz Seix Barralek argitaratu du), non luma maisuaren lege bere hitzak, gogoak eta ekintzak, oraingoak eta

lehengokoak, eta sabotajearen esanahiak modu ederrean plazaratzen dituen.

HITZA ETA DELITUA. “Kontrako berbaren eskubidea erabiltzearen prozesatuko naute. Nire iritzia delitua bada, ez diot betetzeari utziko”. Horixe da bere argudio nagusia. Elkartasun uholde bat sortu da

Italia osoan (iostoconerri.net) eta mundu osoan hedatzen ari da. Eta elkartasunarekin batera AHTren kontrako arrazoiak. Amiantorena, besteak beste. Polizia sindikatuek ere salatu dute obren segurtasuna bermatzen duten funtzionario armatuak amianto kutsakor eta minbizidunaren arriskupean daudela. Izan ere, agintariei urarekin hautsa kentzea otu zaie. “Agian amianto uretan disolbagarria dela konbentziturik”, dio De Lucak.

BERANDU AL DA? AHTren auziak belaunaldi batek baino gehiago ezagutu ditu, Val di Susan eta Euskal

Herrian. Han eta hemen obrak hasita daude baina oposizio ahotsak ez dira isildu eta ez du ematen errepresioarekin amatatuko direnik. Agintari eta komunikabide nagusiek proiektu atzeraezinak eta ezinbestekoak direla baieztatzen diguten bitartean Donostia-Bilbo bidaia 55 minutukoa izango dela publikoki esan dute duela gutxi. Noiz epaituko dira politikarien gezurrak? ■

Polizia sindikatuek ere salatu dute obren segurtasuna bermatzen duten funtzionario armatuak amianto kutsakor eta minbizidunaren arriskupean daudela

JOSU SANTESTEBAN



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Datuak eta pertsonak mintzo

DATUA MINTZO: European baino %40 gutxiago inbertitzen du unibertsitatean Jaurlaritzak. Zenbakia Jaurlaritzak berak emana da, 2011-2014ko unibertsitate planaren gaineko ebaluazioan.

Datua mintzo berriz: Barne Produktu Gordinaren %0,84ko diru-inbertsioa egiten ari da egun Lakua. Alabaina, 2008an, %0,97 bideratzen zen unibertsitateetara; hau da, Deustuko Unibertsitatera, Mondragon Unibertsitatera eta, bereziki, publikoaren Euskal Herriko Unibertsitatera.

Aurrera begirako egitasmoa mintzo: Cristina Uriarte sailburuak adierazi du,

plan berriaren aurkezpenean, hobe dela helburu handiegirik ez finkatzea: 2018rako %1 inbertitzeko asmoa agertu du Jaurlaritzak. Helburuak betetzera –ikusitako egin behar–, 0,03ko aldea litzateke hamar urteren buruan.

EHUko irakasle ugari mintzo: Bolognak ekarritako aldaketak, berrikuntza horrek irakasleekiko zituen egokitzapen eskakizun handiak tarteko, unibertsitate publikoaren diru-iturri nagusia urritzen ari zela egin (nahi izan) dira. “Lan gehiago eskatu digute baliabide gutxiagorekin”.

Datuak eta pertsonak mintzo. ■



Imanol Alvarez

♦ IRAKASLEA

Euskaldunak eta euskara

ORAIN PARE BAT URTE EDO, orri hauetan berauetan, idatzi nuen euskal politikariek, oro har, euskararekiko daukaten utzikieriaz. Adibide paradigmaticotzat, eta oso larritzat hartzen nuen Arnaldo Otegiaren *El tiempo de las luces* liburuaren ildora gertaturikoa. Erdarazko edizioa euskarazkoa baino lehenago argitaratu izanagatik egon ziren ahots kritikoak baretzeko asmotan, Iñaki Soto *Garako* zuzendariak azalpen bat eman zuen, “Arnaldok erdaraz duen zehaztasuna euskaraz ez duela nabarmena da”, esanez. Eta lasai asko gelditu bide zen.

Egunotan antzeko beste adibide bat izan dugu. Manu Lezertua izendatu behar dute, antza, Ararteko. Ez dakit nik lagun horrek dituen meritu eta curriculum profesionalak egokiak diren ala ez lanpostu horretarako; baina zalantza galantak ikusten ditut gizarte eta hizkuntza-egokitasunari erreparatuz gero.

Izan ere, izena jakinarazi zuten egunean bertan Iñigo Iturrate EAJko legebiltzarkideak esan zuen

Izena jakinarazi zuten egunean bertan Iñigo Iturrate EAJ-PNVko legebiltzarkideak esan zuen Lezertua Ararteko gaia euskalduna ere badela, baina ez dagoela argi zer jarotasun-maila daukan, kanpoan urte asko eman baititu

Lezertua Ararteko gaia euskalduna ere badela, baina ez dagoela argi zer jarotasun-maila daukan, kanpoan urte asko eman baititu. Iruzkun ustez xalo horren atzean, ene iritzi, kezkarri bezain larria den horren ñabardura ez den ñabardura bat gelditzen da agerian: geure hizkuntzarekiko euskaldunok izan ohi dugun axolagabekeria. Nola da posible Ararteko izateko euskara menderatzea ezinbesteko baldintza ez izatea, “ere” bat izan beharrean? Nola da posible euskaldun batek normalizat hartzea atzerrian hainbat urte egonagatik norbere hizkuntzan hitz-jarioa galdu izana? Edozelan ere, egun batean “euskalduna” izan izanak ez du inor gaitzen gaur egun euskararen herrian kargu publiko batean aritzeko, gaur-gaurkoz daukan trebeziak baizik.

Esparru ez horren politikoan ere, tamalez, antzera gertatzen da. Enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko Jaurlearitzaren planaren emaitzak aditzera eman berri dizkigute, eta agerian gelditu da, berriro ere, ezer gutxi aurreratu dela. 2008an onartu zen plana, baina enpresen %78k oraindik ez du betetzen. Datu horiek ikusita, eta legea ez betetzeagatik isun faltaren afera alde batera utzita (nahiz eta horrek ere eztabaidarako ematen duen), biziki larria iruditzen zait konstatatzea oraindik ere euskaldunok ez garela gauza gure hizkuntza-eskubideak praktikaren bidetik exijitzeko; hau da, euskaraz eginez, eta, modu horretan, enpresei negozioa egin nahi badute euskara erabili behar dutela helaraziz. ■

Udaberriko zerua ezagutzen

Doako zuzeneko planetario saioa



Martxoak 2 leian



Goizeko 10:30tan



Leku-kopuru mugatua



Ez da erreserbarik egin behar



www.eurekamuseoa.es



eureka!
zientzia
museoa
kutxa gizarte ekintza

Kultura librearen topagunea

KA (Kultura Alternatiboa) plataformak otsailaren 28an aurkeztu zuen bere burua Donostiako Altxerrin. Agerraldi horren atzean asanblada bidez mamitutako proiektu sendoa topa dezakegu: kultura alternatiboan dabilen norbanako oro eta euren ekintzak plataforma batean biltzea da KAren helburua, baita euskal gizartean artea erakusteko dauden zailtasunen aurrean konponbideak aurkitzea ere.

| LIDE HERNANDO |

ZER DA KULTURA ALTERNATIBOA? Ziurrenik, KA plataformako kide bakoitzak erantzun ezberdina emango luke galdera horren aurrean, ez baita erraz definitu daitekeen kontzeptua. Batzuek, profesionala ez den kultura dela esango lukete; beste batzuek, aldiz, merkatu komertzial eta instituzionaletik at dagoena, profesionala izanda ere. Apur bat filosofikoago jarritz, esan liteke Kultura Alternatiboa, bizirik dagoen eta oraindik batasunik ez duen kontzeptu bat den artean, ezin dela hitzez definitu, ekintzaz baizik.

Egia esan, ez da anabasa kontzeptualetan sartzea gure helburua, askoz praktikoagoa den beste hau baizik: kultura alternatiboaren inguruan dabilen norbanako oro aterki baten pean batu eta gure ekintzak gizarteari ikustaraztea. Eta edonor esaten dugunean, batzeko interesa duen *edonor* esan nahi dugu, proiektua guztiz horizontala eta bateratzailea delako.

Lan metodo parte-hartzailea

2012. urtean Donostiako Dokan egindako gogoeta-jardunaldi baten harira sortu zen KAren ideia. Bertan, euskal kulturaren etorkizuna eztabaidan jarri zen, eta ateratako ondorio nagusia hau izan zen: oinarritzko kulturen zebiltzan artistek eta elkarteek ez zutela elkarren ekintzen berri, fluxu kultural oparoa egon bazegoen arren. Bestalde, helburu komertzialik edo laguntza instituzionalik ez zuten artistek euren lanak erakusteko espaziorik ez zutela azaldu zuten, eta espazioak eskaini nahi zituzten agenteek, aldiz, euren lokaletan kontzertuak, erakusketak eta antzekoak egiteko trabak zituztela, isunak tarteko.

Oinarritzko kulturaren egoerarekin kezkatuta zeudenen bilkuretatik sortu da plataforma, elkar ezagutzeko, beharrak detektatu eta irtenbideak bilatzeko

Egoera horrekin kezkatuta geundenok asanbladatan biltzen hasi ginen eta hortik atera zen plataforma sortzeko beharra, baita plataformaren izena bera ere. Ordudanik, hilerio egin ohi ditugu asanbladak Dokan (KA Topaketak), eta hori izan da proiektua mamitzeko erabili dugun metodo bakarra. Bertan ideiak, beharrak eta arazoak plazaratzen ditugu, eta horiei irtenbideak ematen saiatzen gara. Bestalde, hainbat lan-taldetan banatu eta helburu praktikoagoak jorratzen hasi gara: plataformaren komunikazioa eramango duena, ekitaldi kulturalak antolatuko dituen, edota mugimenduaren irudia kudeatuko duena, esaterako. Hilez hil, jendea batzen joan da, izen-emate orrien bidez edota asanbladetara etorritz.

Hainbat hilabetez proiektua garatu ostean, otsailaren 28an egin genuen plataformaren aurkezpena, *KA Zuzenean #1* izenpean. Gure filosofiarekin bat eginez, arte-diziplina ezberdinak ekitaldi bakarrean nahastu genituen, baita adin, sexu, profesionaltasun, jatorri, hizkuntza eta estilo ezberdinak zituzten artistak formatu bakarrean aurkeztu ere. Musikaz, margolanez eta maketaz apaindu genuen Altxerri. Gure helburua, hasierako tiro sinboliko hori eta gero, horrelako ekitaldi gehiago antolatzea da, baita, noski, plataformaren oinarri diren asanbladak egiten jarraitzea ere.

Donostia 2016: kritika vs. oportunitatea

KAren asanblada orotan atera da Kultur Hiriburuari buruzko eztabaida. Alde batetik, argi dugu Donostia 2016 proiektua ez dela oinarriko kulturen dabilizan artista eta agentei inongo mesederik egiteko jaio; gehiago



Sabur taldeak jo zuen KA aurkezteko ekitaldian. Atzean, Iñaki Arizmendi margolariaren lan bat.

dela betiko artista ezagunen erakusleio izango den ikuskizuna, hiriko kultur mugimendu guztiak azaleratzeko oportunitatea emango duen abagunea baino. Hala ere, kontziente gara, berez kultura alternatiboaren alde egongo ez den proiektu hori gure mesederako erabili dezakegula. Azken finean, urte horretan europar kulturaren foku guztiak Donostian ipinita egongo baitira, eta horrek aukera emango die ofizialtasunetik at dauden mugimendu guztiei ikusmira apur bat sortzeko.

Dena dela, ez da gure asmoa Donostia 2016 Kultur Hiriburuari kontra egitea; guk gure aldetik kultura ofizialarena bezain bide sendoa jorratzea baizik. Kultura librearen eremu sortzaile, esperimentatzaile, bateratzaile eta kritikoa elikatu, sendotu eta zabaldu nahi dugu, kosta ahala kosta; eta lortzen ez badugu ere, saiakerak hori egin izanaz harro sentitu.

Kontaktua eta gonbidapena

Proiektu zehatzik ez duena ere asanbladetara gerturatu daiteke ideiak ematera eta jasotzera, eta elkartruke horretan artisten artean proiektu bateratuak sor daitezke; beti izango dira aberasgarriak. Arte mota guztiek dute lekua

hemen, baita iturri ofizialek artetzat jo ez baina kultura aberasten laguntzen duten gairontzeko praktikek ere: antzerkia, margolaritza, argazkilaritza, literatura, musika, magia, umorea, sukaldaritza...

Ahalik eta lagun gehien batzea baitugu helburu, guztion artean indarrak hartu eta kultura alternatiboak duen garrantzia agerian uzteko. Plataformak webgunea sortu berri du: www.kulturaalternatiboa.com. Oraindik eraikuntza-fasean dagoen arren, bertan proiektuari buruzko informazio guztia topatu ahalko du interesdunak, eta plataformara batu nahi duenak ezin errazago izango du hori egiteko: webgunearen azpi-atal batean izen-emate orria bete besterik ez du egin behar. Laster plataformaren ideia nagusiak bilduko dituen teaserra ere argitaratuko dugu. Bestalde, Facebook eta Twitter sare sozialetan ere aurki daiteke KA.

Plataformako kide den idazle batek titular hau jarri zion *Kulturaldia* webgunean idatzi zuen artikuluari: “*Artistas unidos jamás serán vencidos*” (Artista elkartuak, inoiz ez zantpatuak). Egia ote? Ez dakigu, baina gu behintzat baso horretan sartu gara jada, eta ez dago atzera bueltarik. ■

Donostia 2016rekin zer? Plataformako kideek argi dute ez dela beraientzat sortu, baina aukerak ere ikusten dizkiote

«1976an errezagoa zen Espainian euskaraz abestea gaur egun baino»

Solaskide ona da Gontzal Mendibil (Zeanuri, 1956), ia galderarik behar ez duen horietakoa. Kantagintzan emandako azken 40 urteek kulturgintzaren ikuspuntu zehatza eman diote. Proiektu ugartan murgilduta dabil, *Nire Bihotzak zure begiak ditu* (Elkar), disko berriaren zuzenekoak tarteko.

| MYRIAM GARZIA |

Argazkia: Monika del Valle / Argazki Press

40 urte kantuan. Bada kulturgintzari buruzko ikuspegi bat egiteko adina denbora.

1974an igo nintzen oholtzara lehen aldiz, eta handik gutxira, 1975ean, oraindik Franco bizirik zela, Madrilen egin genuen lehen diskoa. 1976an errazagoa zen Espainian euskaraz abestea gaur egun baino. Egun, zenbait espazio alternatibotan jo dezakezu baina, lehen bazegoen herrien arteko elkartasuna eta, euskaldunak aitzindariak ginen erresistentzia horretan askorentzat.

Oso gaztetan hasi nintzen kantatzen, mutil koskorra nintzela. Zeanurin, oso herri euskaldunean hazi nintzen, Gorbeia parez pare.

Belarri onekoa izan naizenez, bost sei urterekin herriko abesbatzan sartu ninduten eta hamabi urterekin amamak erregalatu zidan gitarra. Nire erreferenteak Ez dok Amairuko kantariak ziren: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete... Beraien ondorengoak naiz ni.

Benito bera, edota Estitxu, Natxo de Felipe, euskal kantari asko lehiaketetan hasi ginen. Gogoan dut Abra Saria, adibidez, orduko “Operacion Triunfo euskalduna” [barre egin du]. 1973an irabazi nuen.

Ez dok Amairu mugimenduko kantari gehienak gipuzkoarrak ziren eta guk nahi genuen Bizkaian ere antzeko mugimendu bat sortzea. Lupe, Xeberri, Oihartzunak taldea,

Miren Aranburu... batzuk elkartu ginen, baina politika kontuak zirela-eta zapuztu zen dena.

Xeberriekin egindako *Zaurietatik dario* (1975) diskoaren garaiak ziren hoiek. Ordukoak dira *Kapitalismoak* edota Bittor Kapanagak idatzi eta zuk musikatutako *Bagare*.

Xeberri bera orduan ezagutu nuen. Disko hori arrakastatsua izan zen oso, hainbat kantaldi egin genuen. Baina urte eta erdi baino ez ginen egon elkarrekin, 1976ko urrira arte. Gero beste formula batzuk etorri ziren, RRV mugimendua eta abar, eta kantautoreen

mugimendua apur bat moteldu zen. Baina, kontua ez da modarekin joatea, niri uniformetasuna ez zait batere gustatzen. Bakoitzak bere estiloa dauka, bai musikari dagokionez, baita literaturan ere, begira zenbat idazle on ditugun Euskal Herrian.

Artearen zentzuari buruz hitz eginez gero, eta horretaz gure Laboak asko zekien, gauza bat da ulermena eta bestea sentipena. Eta uste dut gu, euskaldunok, sentipenetatik mugitzen garela gehiago.

Antzerki musikatu arrakastatsuak ere egin dituzu, tamaina handiko ikuskizunak: *Iparragierre*, *Olentzaro*, *Aita Arrupe*... Zaila da halako proiektuak aurrera ateratzea?

“Gauza bat da ulermena eta bestea sentipena. Eta uste dut gu, euskaldunok, sentipenetatik mugitzen garela gehiago”



Nire bihotzak zure begiak ditu hamalagarren diskoa izan da Gontzal Mendibilentzat. Esperientzia duenaren segurtasunarekin hitz egin du, baita etengabe sortzen ari denaren grinarekin ere.

Beste formula bat da, tamaina handiko proiektu musikalak, orkestra, abesbatza, hainbat antzezlek eta abeslarik parte hartzen dute. Gaur egun, krisia dela-eta, halako proiektu handiak aurrera ateratzea zaila da baina, hala ere, egin beharrekoak dira. Iparra-girrerren musikalak 30.000 ikusle inguru izan zituen, euskal hiriburuetakoz zezen plazetan eta areto handietan egin baikenuen.

Loturarik ba al dago kulturaren eta politikaren artean? Iraganen bezala, aldarrikapenak badu lekuri egungo musikan?

Ez dut ikusten kultura folklore hutsa denik, kultura hori baino gehiago dela uste dut. Hitzari bere garrantzia eman behar zaio, eta ez bakarrik nola esan baizik eta zer esan, mezua garrantzitsua da. Autokritika egitekoan, askotan iruditzen zait, gaurko idazleek hizkuntza ondo erabiltzen dutela, baina gehiago dabiltzala euskararen loretan, nola esan garrantzitsuagoa omen da zer esan baino.

Joseba Sarrionandiak idatzi dit azken diskoko abesti bat eta bigarren baten itzulpena

“Bizkaitarrok izan dugu garai batean konplexu dezente, gure euskara txarragoa ote zen”

egin. Badu ahalmen hori, oso ondo adierazten du, eta hala ere, mezurik badu. Niri horrelako olerkariak gustatzen zaizkit, zerbait sakona adierazten dutenak. Hitzak darabiltzagu badugu sakontzeko aukera hori. Poema bat esku artera datorkidanean, beti ikusten dut ea musikarik duen barruan; eta ona bada, izaten du musikalitate hori.

Bide berean doaz hitza eta musika. Nire kasuan, normalean, lehenengo hitza eta gero musika egiten dut, hitzak emandako doinuaren egiten dut abestia.

Bizkaieraz abestu izan duzu, baita nobela bat idatzi ere. Ez da oso gauza ohikoa. Ez al da gure euskalkia besteak bezain baliogarria gauzak adierazteko orduan?

Gainera, Arratiako hizkeraz idatzi nuen *Gorbeia*ko *hai*zea nobela. Duela hamar urte hil zitzaidan aita eta, nire hizkeran berari esan nahi nizkionak idatzi nituen, herriko istorioak, pentsaera eta bizimoduak. Eta egin nuen bizkaieraz, nire herriko hizkeran, nire aitari

egiten nion bezala. Bizkaiera ere badoa gorpuzten, zeren eta guk, bizkaitarrok, izan dugu garai batean konplexu dezente, gure euskara txarragoa ote zen, Euskara Batuak bizkaiera ahaztu zuen eta. Eta Bizkaiko euskara zaharrenetakoa da. *Gorbeia*ko kantak: *Nire Txiki Polita* diskoan ere jaso nituen Arratia aldeko zenbait kanta.

Ondare hori jasotzea eta gaurkotzea garrantzitsua da?

Batez ere, gaurkotzea. Disko adierazgarria izan zen, banuen horri heltzeko gogo. Aurrera begira, egingo nuke beste bat antzekoa, kanta piloa baitago jasotzeko modukoa. Baina gaur egun kanta oso bat entzuteko denborarik ez da. Gure garaian, arratsalde osoa ematen genuen diskoak entzuten! Sakontasuna falta da, telebista ikustea besterik ez dago. “Guk pentsatuko dugu zuen orde” esaten dute. Baina zerbait berria etorriko denaren itxaropena daukat.

Eguno euskal musikan talde asko dago, baina nik eskatuko nieke gauzak egiteko sakontasunarekin. Arinkerietan bizi gara. “Bizitza laburra da eta goazen bizitzera”, diote batzuek. Baina bizitzea zer da ba? Hori baino ez bada, aspergarria da. Badirudi gure kultura gastronomia eta bidaiak baino ez direla.

Gure agintariak, gure kultura bultzatzen egon beharko luketenez, ez dute ez ideiarik ezta interesik ere euskara eta euskal kulturarekin. Eta hori esan beharra dago. Musika programatzen ari diren asko eta asko erdalkeria hutsean bizi dira. Aginte handikoak barne. Bertakoa ez badugu babesten eta aupada ematen, ez goaz ondo. Eta, ez badute bizi, nola aupatu? Nola aurrera aterako dugu gure kultura beharrianik ez bada?

“Gure agintariak ez dute ez ideiarik ezta interesik ere euskara eta euskal kulturarekin. Bertakoa ez badugu babesten eta aupada ematen, ez goaz ondo”

Xabier Amurizak esaten zuena, militantzia ezin du kultura bat gorde baina militantzia urritu denean, beharizana sortu beharra dago. Betiko borrokan gaude oraindik. Geurea babesten ahalegindu beharko ginateke. Frantziak, Brasilek eta Kanadak kuotak dituzte, eta euren aurrekontuetako ehuneko handi bat zuzentzen dute bertako kultura babestera. Gurea urrituz doa, ez ordea erdal musikarena, adibidez. Eta ez bakarrik gazteak, helduak ere erdal musika entzuten eta erdal kulturaren murgiltzen dira batik bat, gure musikaz paso egiten dute.

Gazte batek, gauzak horrela ikusita, espainolez edota ingelesez abestuko du, nahiz eta euskalduna izan. Eta gure kultura utziko du. Niri pena ematen dit horrek, hori baita gure geroa, gure ondorengoak gutxi ikusten ditut. Errealitatea da hori.

Kantautore bezala definitzen duzu zure burua baina eszenatokian lehen mailako hainbat musikaririk laguntzen dizute, zure azken diskoa *Nire bihotzak zure begiak ditu da* horren lekuko. Hamalagarren diskoa duzu.

Benoa, kantautore... Ni naiz kanten egilea, besterik gabe, baina musikari onak ditut lagun. Gustura geratu naiz diskoarekin. Neure-neurea da. Sarriren abesti bateko hitzak izan ezik, nik konposatu eta idatzi ditut abestiok. Normalean, lau urtetik behin ateratzen ditut diskoak. Gure herria txikia da eta ez dut erre nahi ikusleria.

Egun eta gau ematen dut lan honetan, proiektu txiki eta handiagoetan. Beste musikal bat egiteko gogo daukat, baita zerbait biluzia egiteko gogo ere, nik bakarrik gitarrearekin, bakarlari gisa. Orain formatu txikiko ikuskizunak daude bogan, eta Larrabetzun eta Arrigorriagan aritu naiz bakarkako kantaldiak egiten. Garaietara ere egokitu beharra dago... ■

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

æek
19.korrika

EUSK AHAL DUN!

Urepeletik Bilbora
2015eko martxoaren 19tik 29ra

BADATOR!


www.korrika.eus



Literatura

Dirua galgarri
Mariano Izeta

Euskaltzaindia,
Baztango Udala
2015



Moralkeria da delitua

TXALOTZEKOA da Mariano Izetaren *Dirua galgarri* nobela berriz argitaratzeko ideia, kasik sen arruntaren kontrako apustua baita euskarazko genero beltzaren genesiari paper berria ematea. Euskaltzaindiak eta Baztango Udalak egin dute edizioa eta arratsalde bakarrean irakur dezakezu, 100 orrialdera iristen ez den istorioa erraz ulertzeko maneran baitago idatzia, kontakizuna erabat lineala da eta ekonomia berbala du ezaugarri nagusi.

Ez nion Izetaren nobelari eskatzen “ona” izatea. Hutsuneak baditu, gauza asko faltan sumatuko dituzu, bai eszenetan, bai pertsonaiak eraikita dauden moduan, baita istorioaren korapiloetan ere. Baina 1962an idatzia da, ez litzateke bidezkoa “Raymond Chandler baztandarra” izan zedila eskatzea egun eskura daukagun almatzen literariorik gabe eskribitu zuenari.

Hain erraz pasatzen ez dena narratzailearen posizio ideologikoa da. Nobela moralizatzailea dela esatea ez da gehiegikeria, ezta istorioa kontatzen duen ahotsa boterearekin erabat lerratzen dela esatea ere. Adibidez: lapurreta baten ondoren poliziak “ohiko susmagarriak” atxilotuko ditu. Komisarian “merezi zuten zanpaldi bat” jaso dutela eta ondoren giltzapean sartu dituztela irakurtzen duzu (5. kapitulua) eta ondoren aske uzten dituztela. Baina bigarren gertatzen denean narratzaileak ez die errugabetasunik ere aitortuko –gaizkilea gaizkile da, kausa honengatik ez bada, beste zerbaitengatik–.

Delituaren benetako egilea argitzen denean ere, “etsaiaren tentazioa” da lapurretari ematen zaion kausa. Edo, bestela, lanik egin gabe bizi nahia. Ebasleak alferra delako ebasten du, ez dago beste motiborik. Nagusien eta morroien arteko desberdintasun ekonomikoak gauza naturalizat jotzen dira, lapurreta bezalako ordena-hausteak zuzendu beharreko desbideratze gisa ulertuz. Eta aparteko kapitulua mereziko luke emakumeek betetzen duten rola aztertzeak.

Gauza guztiok ez ditugu seinalatzen bestelako pentsamolde politikoak babesten ditugulako bakkarik: narratzaileak egindako aukera horiek fikzioari kalte egin zioten, hain argi epaitu baitzituen pertsonaiak, ezen ezustekorako tarterik gabe laga zuen kontakizuna –balore moral edo ideologikoen transmisioa istorioaren aukeren gainetik jartzen duten idazleei usu gertatzen zaien moduan–.

Izetaren lanak zabalduetako genero beltzaren bidean aurreratu da ondorengo hamarkadetan, batzuen ustez gehiago besteen ustez baino. *Dirua galgarri* berrirakurtzea ariketa interesgarria da, abiapuntua zein izan zen jabetzeko. 1960ko hamarkada hartan gure nobela beltzek ere praktika txintxoen manual baten itxura handiegia zuten. Zer edo zer espabilatu dugu. ■

**Gorka
Bereziartua Mitxelena**



ATE IREKIEN ASTEA
Martxoaren 23tik 27ra



27 17:00 etatik aurrera
ENTZUNALDIAK
Kontserbatorioko
ikasle eta taldeen
DSS 2016 gunean



Musika Kontserbatorio Profesionala
FRANCISCO ESCUDERO
www.conservatorioescudero.org

Literatura

*Bortxaren kontakizunetik,
kontakizunaren bortxara*
Joxe Manuel Odriozola
Txalaparta, 2014



Irakurtzera bortxatuak

BORTXAREN *kontakizunetik, kontakizunaren bortxara*, horra hor, Altzoko saiogile euskaltzale erraldoiaren azken emaria. Irakurketa pausatua eskatzen duen liburu gotorra. Amaitu osteko nire lehen burutapea: irakurtzera bortxatuak zaude, hots, garena ulertzera iristeko baitezpadako entsegua duzu.

“Hiru bortxa mota daude”, irakurri diogu Johan Galtungi liburuak dituen aipu ugarien artean. “Lehena, oinarrian, bortxa kultural iraunkorra da, gainerako bien zurigarria. Bigarrena, prozesu gisa eratutako bortxa estrukturala litzateke: modu legal, anonimo eta inplizituan egituratua. Hirugarrena, gertaera moduan islatzen den bortxa zuzena, ikusgarria eta asaldagarria”.

Liburuaren ezaugarri behinena, biolentziari buruzko gogoeta sakona egin duten pertsonen aburuetan oinarritua egotea da, bai pentsalarien bai zuzenki nozitu dutenen iritzietan.

GAIAZ JUZKU ARINAK EGITEN DIRA: indarkeria aipatzen delarik, modu arin batez aipatu ohi da, hots, “datorrenetik datorrela” beti berdina dela erran ohi da. Erran nahi baita, indarkeriari buruzko juzku arinak egitera bortxatzen gaitu, nork eta indarkeria estrukturala darabilenak.

BORTXA ETA BAKEA: mundua, mundua denez gero, abere arrazionalok indarrez ezarri dugu bakea, baita aro modernoko “demokrazia zerutiarra” ere. Baita biolentzia jasaten dugun lurtarrok “onartu” ere. Bortxa estrukturalan oinarritutako bakea.

BORTXA ESTRUKTURALA ETA ETAREN BORTXA: lehena politikoa bada, bigarrena ere bai. Kontua da, estrukturala bakealdian ezarria deino, bakealdian kontrakarreko indarkeria bere oinarri ideologiko politikoari uko egitera bortxatu nahi dutela, nork eta indarkeriaren monopolioa dutenek. Estatuek.

ESTATUA ETA BOTEREA: egungo demokraziaren oinarria bortxa bada, bortxa bada boterearen izaera, nola eraiki estatua gure izateari uko egin gabe? Eztabaidarako hamaika hari txirikordatu ditu Joxe Manuel Odriozolak. “Estatua izan edo estatua eraiki”. Horra hor, hainbat pentsalarien arteko dilema edota debata. Estatua problema ote? Menperatzailerentzat ez. Menperatuarentzat?

DEMOKRAZIA EUSKALDUNA, ETIKA ETA MORALA: giza historia, aro modernoa barne, indarkerian oinarritua izaki, posible ote da bortxa “gaiztoa” eta “ona” legez bereizterik? Zer pisu du gudan, giza-kiongan eta euskaldunongan erlijioak? Demokrazia ote mendebaldarron erlijio berria?


KONTAKIZUNAREN BORTXARA: auzi politikoa ote da euskaldunona? Ala politikak –demokraziak edo demokrazia ezinak– harrapatu digun arazo kulturala? Arazo kultural gaindiezina, akaso? Premisa bat: “Euskal Herrian nozitu behar izan dugun bortxa giro latza ez dadila berriz inoiz gertatu”. Nola ez erori bortxaren monopolioa darabilenaren moldeetan?

HISTORIA EZ ZEN HASI BAINA, ARO MODERNOAN: hau da, estatu modernoan aitzinetik baziren estatuak, hor nonbait. Nafarroakoa kasu, horixe euskaldunona. Konkista, okupazioa eta asimilazioa. Izan garelako gara? Zer izan ginen baina? Euskal estatuak euskalduntasuna bermatu al zuen? Edota bermatuko al du? Hots, estatua lanabes edo helburu ote? Historia eta memoria gure izatearen konstruktua dira, konstruktua dira ere nortasuna, inteligentzia eta sorkuntza.

ESTATUA, PERTSONA, SOZIOLOGIA, PSIKOLOGIA: Joxe Manuel Odriozolak Max Weber bidaide izateaz beste –persona estatuaren eta jendartearen baitan–, Sigmund Freud ere bidelagun dauka. Hots, kontzientzia eta inkontzientzia, biak daude gure izatearen oinarrian. Ez dira azpimarratzeko pentsalari bakarrak. Etxekoak eta euskaraz pentsatzen duten aburuak baitezpadakoak dituzu liburuon.

Bortxaren kontakizunetik, kontakizunaren bortxara saio ausarta da. Suaz aritzen denak ausart izan behar baitu, ausaz. Antidoto hagitz ona duzu indarkeria ulertzeko. Areago, arrazoia eta hunkiberratasuna gizakiaren izaera bortxatzailearen elikagaiak direla jabetzeko ere. Bortxazko izate hori deseraikitzen ikasteko entsegu aproposa dukezu. Eta bidenabar, euskaldunen argien mendea noizbait urratuko den esperantzaz, euskaldunon nortasuna eraikitzeko. ■

Mikel Asurmendi



Euskal Herria ezagutuz

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA (GIPUZKOA)

Altxor karstikoa flyscharen itzalean

Badakigu Euskal Kostaldeko Geoparkeko flyscha munduan bakarra dela. Baina flyscharen ospeak ez gaitzala itsutu, Geoparkearen barnealde karstikoak merezi du eta. Duela milioika urteko korala kareharri bihurtu eta ura kareharri hori moldekatuz joan da, bailara itxiak, erliebe bitxiak, kobazuloak... sortuz. Gizakiak hori guztia baliatu du, eta paisaia eder honetan aztarna utzi. Goiz bakarrean 115 milioi urteko bidea egin dugu.

Testua eta argazkiak:

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

DEBAKO HONDARTZA hartu dugu abiapuntu. Autoa bertako aparkalekuan utzi eta ekialdera, Lapariko hondartza aldera jo dugu, izen bereko behatokira iristeko. Oinez bide laburra egin arren, metro gutxian denboran 115 milioi urte egin dugu atzera. Geoparkeko zuzendari zientifiko Asier Hilariok azaldu digu orduan itsaso tropikalak estaltzen zuela Geoparkeko eremua. Planetaren batez besteko tenperatura egungoa baino altuxeagoa zen orduan, eta egun Geoparpeak hartzen duen eremua tropikotik gertuago zegoen.

Sakonera txikiko itsaso horretan koralezko uharriak sortu ziren. Egungo Iberiar penintsula, artean uhartea, biratzen ari zen garai hartan, eta Bizkaiko Golkoa irekitzea eta arrakala sakonak sortzea eragin zuen horrek. Sakonune horietan metatu zen orain zapaltzen ari garen flysch beltza. Flyscha da Geoparkeko izarra, bisitari gehienak erakartzen dituen; Hilarioren

hitzetan, “mapan kokatzen gaituena”. Gu, ordea, barnealdera begira gaude. Hondartzaren atzean Debaiko herri-gunea dago, eta atzerago Arno ingurua ikusten da. Hara goaz, duela milioika urteko koralezko uharrietara.

Flyscha da Geoparkeko izarra, bisitari gehienak erakartzen dituen, baina karstak ere badu garrantzia. “Gure Dordoina txikia”, Asier Hilario geologoaren hitzetan

Karsta dastatzen

N-634 errepidea hartuta Mutrikura jo dugu eta handik GI-3562 errepideak Olatz auzora eraman gaitu, hogeit bat minutuan. Koralak denbora luzeagoa behar izan zuen kareharri bihurtzeko, nola kareharri gogor baina disolbagarri horrek erliebe forma karstiko bereizgarriak eratzen. Poljeak arroka karstikoan sortutako sakonune handiak dira,


haran itxiak, eta Olatzekoa adibide nabarmena da.

Barnealdetik Añu eta Olatzgoikoa ibaiek bat egiten dute Olatzen, baina itsaso aldera begira jarri gara eta erliebeak ez du behera egiten, gora baizik, paradisu txiki isolatua osatuz. Izan ere, bi ibaietako urak Olatzen bertan, Kobaldeko sarbegi itzelean barrena, lur azpian sartzen dira. Kobalde ez dugu ikusten, landareek estaltzen dutelako, baina uraren burrunba entzutera hurbildu gara. Asier Hilario geologoak dio egokia litzatekeela etorkizunean sarbegiaren ingurua garbitzea eta plataforma moduko bat ipintzea. “Horrek bisitariak erakar ditzake”; gogoratu, Geoparkeko hurbiltzen diren gehienak kostaldeko flyschera mugatzen dira.

Geoparpeak dagoeneko “Karsteko zaporeak” izeneko bisitaldi gidatua dauka antolatuta, Olatzeko inguruak ezagutarazteko. Bi ordu inguruko ibilbidean, paisaia karstikoaren elementuak ikusteaz gain, Goie-

Lasturreko poljea ikus daiteke argazki honetan. Gainazalean sumatzen diren inbutu moduko sakonune txikiak dolinak dira; dolinak handitu eta bata bestearekin elkartzean sortzen dira poljeak; alegia, haran itxi baten forma duten sakonune handiak. Lasturrekoak ohiko itxura du, luzea. Aldiz, Euskal Kostaldearen Geoparkeko beste polje garrantzitsua, Olatzekoa, askoz eliptikoagoa da, ia biribila.





Izarraitz ingurua, Endoiatik ikusita.

netxe baserrian artaldea ikusi, gaztagintzan parte hartu eta gazta eta txakolina dastatzeko aukera dago.

Kalbaixoko baseliza

Añu eta Olatzgoikoa ibaien artean Basarte (442 m) mendia beste elementu karstiko baten adibide garbia da: pinakulua. Hilariok esan digu atzealdean mendia ez dagoela era-

bat bananduta, pinakulua ez dagoe-la erabat hustuta, baina Olatzetik begira piramide ia perfektua ikusten da. Gainazal horizontala pixkanaka disolbatuta sortzen dira pinakuluak eta klima tropikaleko ohiko modelatuak dira. Goiz hotz honetan, itzaleko zelaia izotzak zurituta daude oraindik, eta elur arrastoak ere ikusten dira gailurretan; ez da

erraza eremuaren iragan tropikala imajinatzea.

Berriro autoa hartu eta GI-3562 errepidean atzera eginez, Astigarribiara doan GI-3230tik jarraitu baino lehen, ezkerrera, Kalbaixoko ermitara doan bidexka hartu dugu. Flyschak eta karstak bat egiten dute ikuspegi bikaineko kokagune honetan, ermitaren kanpoaldeko idi-pro-

Zer da Geoparkea?

IBILBIDEA Lapariko behatokian hasi arren, hitzordua Euskal Kostaldeko Geoparkearen gunean egin dugu, Deban. Praileaitzeko lepokoen eta venusaren erreplikak, fosil itzelak, estalaktika baten sekzioa... dituzte ikusgai. Eta Euskal Kostaldeko Geoparkearen nondik norakoak azaltzeaz gain, Europako Geoparkeen Sarearen berri ere ematen da bertan.

Geoparkea Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen dute 2010etik. “Geoparkeak garapen jasangarrirako estrategien aldeko apustua egiten duten lurraldeak dira, euren balio natural eta kulturalen oinarriturik”. Euskal Kos-

taldekoa Euskal Herriko eta Kantauriko eremuko lehena da, eta bertako baliabideak –nagusiki geologikoak– nabarmentzea du helburu, ondare geologikoa eta kulturala modu jasangarri eta pedagogikoan ustiitzea.

Europako Geoparkeen Sarea 60 bat eremuk osatzen dute. Munduko gainerakoak bezala, UNESCOren babespean daude. Lurralde antolakuntzan eredu berritzailea abiarazi dute, espazio fisiko, natural eta kulturalari laugarren

dimentsioa erantsiz: denbora geologikoaren eta Lurraren historiaren dimentsioa.

**Informazio gehiago
Geoparkearen webgunean
(www.geoparkea.com).**



EUSKAL KOSTALDEAREN GEOPARKEA



Plazaolako errota, Gaztañadi erreka uraren indarraz mugitzen direnak. Erdi Aroko erregistroek erakusten digutenez, errota hauek burdinolak izan ziren hasiera batean.



balekua flyscheko harriez egina baitago –1989an bildu zituzten Saturrango hondartzan– eta arrastaka eramateko harriak, aldiz, karsteko kareharri estimatuaz.

Lasturko poljea

Ermitatik jaitsi eta GI-3562an bide laburra daukagu GI-3230 errepideko bidegurutzera iritsi bitartean. Eskuinera joko dugu hor, Lastur aldera. Lasturko poljera iritsi baino lehen, Astigarribian, pinakuluak, konikoak nahiz esfera erdi itxurakoak, oso nabarmenak dira, Basartekoa bezala artadi bikainez estaliak, tapizatuak, baita neguan ere, hosto iraunkorreko espeziea baita. Mediterraneoko zuhaitz tipikoa, Kantauriko isurialdean ere ohikoa da artea, hau bezalako kareharrizko lurzoru malkartsuetara ederki moldatzen baita.

N-634aren bidegurutzera iristean, Debara jo ordez, GI-3293 errepidea hartuko dugu Lasturrera. Bide bihurrian behera Lasturko poljean sartu gara. Olatzeko poljea eliptikoa da, biribila ia, baina Lasturkoa luzeagoa da, ohikoagoa. Haranaren hasieran egin dugu geldialdia, bertatik polje osoa ikusteaz gain, dolinak hautemateko toki aproposa baita. Lurrazaleko urek maila freatikoa bilatzeko joera dute beti. Bidean kareharria disolba-

tzen dute eta hala eratzen dira dolinak, inbutu moduko sakonune txikiak. Beste elementu karstiko batzuen oinarri dira, gainera; dolinak handitzen diren heinean, bata bestea erekin elkartzen dira eta horrela sortzen dira poljeak, eta dolina artean geratzen diren ertzak, aldiz, elkartu eta pinakuluak sortzen dituzte.

Errotak lur gainean, kobazuloak azpian

Bidean aurrera egin eta bizpahiru minutuan Plazaolako errotek berriro gelditzeko eskatu digute. Gaztañadi erreka urak mugitzen dituen irin-errotak burdinolak ziren jatorriz, 1335eko erregistroen arabera. Burdingintzak errentagarritasuna galdu ahala, ola asko errota bihurtu ziren eta bailarako nekazariak hara eramaten zituzten artaleak, bertan eho eta irina lortzeko.

Berriro ere nabarmen geratu da inguru hau taxutzeko urak duen garrantzia. Eta, uraz gain, giza jarduerak ere eragina dutela agerian uzten dute errota hauek, Kalbaixon ikusi ditugun inguruko harrobieta-ko harriek bezala.

Baina gizakiek hemen utzitako ondare preziatuena ez dugu ikusiko, lur gainean gauden bitartean behintzat. Gainazala ez ezik urak lur azpia

ere zizelkatu baitu. Kareharri gogorrena erraz disolbatzen du urak eta, denboraren joanean, kobazulo eta konduktu konplexuak sorrarazten ditu lurpean. Goi Paleolitoan kobazulo horiek bizileku aproposa ziren gizakientzat, are gehiago kostaldetik hain hurbil egonda.

“Dordoina txikia”

Karst honetan gizakiek okupatutako 40tik gora kobazulo daude. “Egia da Geoparkeko flyscha bezalakorik ez dagoela munduan”, dio Asier Hilarriok, “baina karsta gure Dordoina txikia da”. Besteak beste, Ekaingo horma-irudiak edo Praileaitzeko lepokoak horren froga dira.

Lasturreko haranetik irten eta Endoiara egin dugu GI-3292 errepidea hartuta, Izarraitzen gailur zuritua lagun. Geoparkearen mugan amaitu dugu ibilbidea. Alde batean Zestoa dugu, eta bertan Ekain Berri. Beste aldean Deba eta Ekain zaharra. Zaharra, gizakion ikuspegitik, 15.000 urte huskeria baitira egin berri dugun milioika urteko bide geologikoan. ■

Geologia, arkeologia eta paisaia Karst eremuan bideoa ikusteko:
ttiki.com/337453



Hitz gezidunak

Gaia: Arabako herriak

GORKA AZKARATE

PEDRO TAPIAS / BASKIMAGEN

1		TXADEKO HERRITAR LANARTE	ERRAZ ILUN- TZEN DENA EGUNEROKO JANGAI	ZAKAR, BALDAR ABERE MOTA	ZEGOEN IRMO, SENDO	2	
		2 AITZAKIA, ESTAKURU					
1	KOLPEAREN ONOMATO- PEIA	ADINEKO NITRO- GENOA				ATERA, IRTEN 3	TXAPELA ... IBILI MUNDUAN GAIZTO
			KISKALI, ERABAT ERRE ATAIZEAN, BARRANDAN				
ENERGIA SALBU		Uso LETRA IZENA		MUTURREKO ZATI GOGOR UNEKO EGUNEAN			
			IDISKO NAFARROAKO HERRIA		ZUHAITZ IZENA BI BOKALEN SEGIDA		
ERABAT, ZEHARO LISTUA			BAZKA JOAN DEN GAUEAN			GALIOAREN IKURRA TONA	
		KULUNKA QATARKO BIZTANLE		ATERA NONDAR ATZIZKIA			
							
3		PRESIO UNITATE 4		SARBIDE ANPEREA			4

UNAI Fdz. DE BETOÑO-CC BY

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

5	9		1		4			
	1		5				9	
7					6	2		
1	2	9						
				7				
						6	3	2
		1	4					3
	4				2		1	
			7	5		8	6	

Dedukzioa

Aurki ezazu hitz ezkutua, zenbakiak hitz bakoitzeko zenbat hizki daukan adierazten duela kontuan izanik.

B	A	K	I	O	0
O	P	A	K	A	1
B	E	S	O	A	1
M	A	I	S	U	2
K	U	P	O	I	2
B	A	R	I	K	1

Soluzioak

9	8	4	5	1	7	2	3	6
5	1	6	2	3	8	7	9	
3	2	7	6	9	4	1	5	8
2	3	9	1	5	6	8	7	4
6	4	1	8	7	2	5	9	3
8	7	5	3	4	9	6	2	1
1	5	2	9	6	3	4	8	7
4	6	3	8	7	5	9	1	2
7	3	1	2	4	8	6	5	

DEDUKZIOA:
PREMIU

			N	O	N	A	R	O	N		
			A	T	E						
			T	A	R						
			A	B	U	Z					
			A	L	H	A					
			I	R	T	E					
			P	I	N						
			K	O	S						
			O	Z	O						
			K	A	L	D					
			N	D	N	I					
			I	N							
			A	D	I	N					
			T	A	R	T	E				
			T	I							

Emakumeen ekarpenak ikusarazteko

Mariasun Landa sarien V. edizioa

Noiz: martxoaren 7a.

Non: Xenpelar Etxea, Errenteria-Orereta.

HERRIARI zerbait ekarri dioten emakumeak ezagutarazteko asmoz jarri zituzten martxan duela bost urte Mariasun Landa Sariak Errenteria-Oreretan. Martxoaren 8aren bueltan banatu ohi dira. Eta, pixkanaka, erreferentzialtasuna hartzen ari da herriko idazle ezagunenetarikoen izena daukan zita. Eredu interesgarri eta imitagarria beste herrientzat ere, urtero-urtero lortzen baitu historia nagusiak, ofizialak, gizonek idazten duten horrek hanka puntetan pasa dituen pertsonak lehen planora ekartzea.

Historia berreskuratzeko ariketa? Bai, baita gehiago ere. Zeresana duten emakumeen lana nabarmenduz, gaurko eta biharko emakumeek egiten dutenari ere merezi duen aitortza emateko aukerak biderkatzen baitira. Gertatutakoa berridaztea bezainbat da historia berria idazteko oinarriak jartzea.

Kalitatezko bederatzi lan aurkeztu dira aurten eta epaimahaiak bi sari eta bi aipamen berezi banatu ditu. Adineko emakumeen historiak izan dira protagonista 2015eko edizioan, Agustina Otaolarena esaterako. 1931n jaioa, 15 urterekin hasi zen erraketista profesional gisa jotzen, familiako zenbait kideren pausoak jarraituz —lau osaba ere zeregin horretan aritzen ziren—. 1967an erretiratu zen frontoietatik, 41 urterekin eta garai hartako jokalarri garrantzitsuenetarikoa bihurtuta. Non zegoen gordea nobela eder baterako ere emango lukeen historia hori? Ez, ez da kontu berria gizonezkoek egiten duten kirola argazki handitan argitaratzea, emakumeen balentriak albiste laburren tarterako utzita.



JAVIER CARBALLO

Agustina Otaola erraketista izan zen 41 urterekin erretiratu zen arte. Berari buruzko lan bat saritu dute aurtengo edizioan.

Kontatuak izatea merezi duten historiak dira. Formatu laburreko testuak (6.000 karaktere artekoak) saritu dituzte martxoan, baina aurtengo irabazleen artean badago arnas luzeagoko lanak idazteko aukera eman dezakeen lehengairik ere. ■

aurkezpena BILDUMA presentación	Bildumaren aurkezpena	Martxoak 13	ostirala 18:30etan Xenpelar Etxean
	erakusketa Industrializazioa, emakumeak eta lana Errenterian (XIX. eta XX. mendeetan)	Martxoaren 6tik 26ra	
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputazio Nagusia Berrikuntza Zuzendaritza Nagusia Dirección General de Calidad	Errenteriko Berdintasunerako Kontseilua Consejo de Igualdad de Errenteria	Errenteriko Udala	


Saharako hautsa Amazonian elikagai

SAHARAREN eta Amazoniaren artean milaka kilometro daude, ez dirudi bien artean harreman handirik egon daitekeenik. Baina Maryland-eko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek, NASAko satelite baten laguntzaz, erlazioa uste baino estuagoa dela frogatu du.

Calipso sateliteak 2007 eta 2013 artean laser bidez egindako neurketak aztertuz heldu dira ondorio horretara. Antza, urtero 182 milioi tona hauts ateratzen da Saharatik, eta 2.600 kilometro egin ondoren, 132 milioi tona heltzen dira Hego Amerikara. Horietatik 37 milioi inguru Amazoniako oihanean lurreratzen dira, euriaren eraginez.

Hauts horretan hainbat mineral garraiatzen dira. Horien artean fosfatoak dira garrantzitsuenetakoak, landareentzako ongari eraginkorrak baitira.

Baina Saharako hautsaren eragina ez da hor gelditzen. Ozeano Atlantikoan eta Karibe itsasoan itsasoraturako hautsak fitoplanktona elikatzen du, eta horregatik dira hain aberatsak bertako ekosistemak. ■



NASA



NEIL PALMER-CC BY SA

HIESaren jatorrian, gorilak ere bai

30 urte igaro dira HIESak gure gizartean izua sortu zuenetik. Tarte honetan jende asko hil da, eta aldi berean aurrerapen mediku itzelak lortu dira. Gaitzaren jatorriari buruzko ikerketek aspaldidanik tximinoengan kokatu dute hasiera, eta gero eta zehaztasun handiagoak daude horri buruz.

ttiki.com/337440
(Frantsesez)

Paleolitoko grabatuak aurkitu dituzte Erlaitz kobazuloan

EHUko arkeologo talde batek, Alvaro Arrizabalagaren zuzendaritzapean, duela 20.000 urte inguruko grabatuak aurkitu ditu Debako Erlaitz kobazuloan. Animalia itxurako grabatu horiek Paleolitoko ohiturak hobeto eza-gutzen lagunduko dute.

ttiki.com/337441
(Euskaraz)

Itzalaldi analogikoak kutsadura larria eragin dezake Mexikon



2015EKO ABENDUAREN 31N telebista seinalea aldatuko da Mexikon, egungo seinale analogikoa digital bihurtuko baita.

Aldaketa horrekin batera, Mexikoko Gobernuak telebista digital bana jarriko du hamalau milioi etxebizitzatan. Ekimen interesgarri horrek ifrentzua du, ordea: zer egingo dute ordezkaturako diren hamalau milioi telebista analogikoekin?

Gobernuak ez du telebista zahar horiek birziklatzeko inolako asmorik agertu. Gero eta talde gehiagok azaldu dute kezka, batez ere telebistetan oso ohikoa den berun oxidoa dela eta; konposatu horrek kutsadura larria eragin dezake lurpeko ur geruzetan. ■

Txakurak gai dira gizaki fidagarriak identifikatzeko

Animal cognition aldizkarian argitaratutako emandako artikulu batean, ikerlari talde batek 34 txakurrekin egindako ikerketa baten berri eman du. Adierazi dute, txakurrok, gizakien aurpegiko keinuak ulertzeaz gain, ustekabeko giza jarrerak ere ulertzeko gai direla frogatu dute. Hala, zein gizaki den konfiantzazkoa jakin dezakete.

ttiki.com/337444
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Terminator

EZ DA, ez, film baten izena. Baina fikzio izugarrienak baino gehiago izutzen duen errealitatea da. Gordina. *Terminator*. Deuseztatzailea, eze-reza dakarrena.

Hazietan garatu den teknika bati esaten zaio *terminator*. Transgenikoak sortu dituzten enpresek negozioa areagotzera bideratua. Beren botere gosea berdintze aldera ekin zioten *terminator*-aren ildoari. Funtsean, erraza da: landare transgeniko bat asmatzen da, eta, jakina, patentatu egiten da; aldatutako geneen eraginez ezaugarri bereziak izango ditu, eta gene horiek landareak sortuko dituen hazietan transmitituko dira. Beraz, bigarren belaunaldiko haziak hedatzen direnean patenteak babesten duen negozioa nahi gabe ere hedatzen da. Horrek, noski, patentearen balioa urardotzen du, eta garbi diote: hazi bioteknologiko horiek sortzeko inbertsio erraldoiak egin dituzten enpresen interesak babestu behar dira.

Patenteena negozio gutxitxo, nonbait, eta gehiago behar. Nondik edo handik boterea puztu behar, aseezinak dira. Hamar enpresak



dute beren esku munduan erabiltzen diren hazi komertzialen merkatuaren erdia. *Terminator*-ak denon elikaduraren jabe egingo ditu: *terminator* hazitik sortzen den landareak emandako haziak antzuak izango dira. Erein eta ez dira jaiotzeko gauza izango. Eta inguruan kutsatzen direnak ere antzutuko ditu.

Transgenikoek inolako onurarik ez dakartela pentsatzen dugunok gene horiek hara-hona ibiltzea kalte izugarriak eragiten ari dela diogu. Betiko tokiko nekazaritza egiten den alderdietan, gene txar horiek, polenaren bidez, bertako haziak kutsatzen dituzte. Lore arteko truke ziztrin horrek betira-



Bigarren belaunaldiko haziak antzu bihurtzeko sortu zen *Terminator* teknologia. Lerro hauen gainean, haren debekua eskatzeko erabilitako afixa bat.

ko izorratuko ditu milaka urtean hautatuz, hobetuz eta trukatzuz zaindu diren aldaeren haziak. Hamaika belaunaldiren lana, pikutara. Lehen, gaitz erdi, gene bat txertatzen zitzaion. Orain, gaitza erabatekoa, haziak ernatzeko gauza ez direla geratuko dira. Lehen, transgenikoak nahi dituzten nekazari industrialek soilik erosi behar zituzten hazi horiek. Laster mundu osoak beharko ditu. Negozio biribila. Patenteenaren aldean monopolio sendoagoa.

Oraingoz galarazita dago. Itxuraz. Baina saioetan erabili izan diren geneak hor dabilta, airean, hara-hona... ■



JAKOBA ERREKONDO



J. E.

Garoa eta aza

AZAK duen arerio nagusia tximeleta bat da. Arrautza horiak multzoka jartzen dizkio hostoaren azpiko aldean. Harrak jaiotzen direnean, zirt-zart, jan eta jan hasiko dira. Egun batzuetan besterik ez dute egingo. Utziz gero, landarea zipiztu arte. Erasoari aurea hartze-

ko, garo hosto bat azaren gainean jartzea ona omen da. Aurreko batean Donostiako baratze batean ikusi nuen argazkiko aza jendea. Ez zuten harraren arrastorik, barraskiloen zulo batzuk besterik ez. ■

Heriotza zigorra hildakoentzat



Jean Paul Laurensen *Formoso aita santua eta Esteban VI.a*, (1870), Formosoren hilotzaren aurkako epaiketa irudikatzen duen koadroa.

ERROMA, 896. Formoso I.a aita santua hil zen modu susmagarrian, zantzu guztien arabera Spoleto tarrek, Italiako noble familia boteretsuenetakoa, pozoituta. Formoso traidoretzat zuten Guido di Spoleto Italiako tronutik egozteko lortu zuelako. San Pedoren jarlekuan Bonifazio VI.a eseri zen orduan, baina ez luzaroan. Garai nahasiak ziren Vatikanon, mende eskasean 24 aita santu izendatu zituzten eta intrigak, konspirazioak, hilketak... ziren eguneroko ogia. Ondoren, Esteban VI.a izendatu zuten aita santu –hark ere ez zuen urtea beteko karguan– eta Lamberto di Spoletoen alde lerratu zen berehala. Spoleto Formosoren traizioa kondenatzeko eskatu zion aita santu berriari.

Eta, hala, 897. urte hasieran, Erromako kuria guztia bilduta, sinodo berezia antolatu zuten Formoso epaitzeko. Gorpua hilobitik atera eta, aita santuaren jantzi guztiak soinean, tronuan eseri zuten. Abokatua izateko aukera eta guzti eman zioten, baina hildakoa erruduntzat jo zuten berdin. *Urbi et orbi* bedeinkapena emateko erabiltzen diren hiru hatzak moztu zituzten eta gorpua Erromako kaleetan herrestan eraman zuten. Ondoren, gorpua erre eta Tiberrera bota zuten.

Arrantzale batek erreskatatu zuen Formosoren gorpua, eta Juan IX.ak haren irudia.

Rikardo III.a Ingalaterrakoa, Vlad Tepes Valakiako printzea –Drakularen

inspirazio iturria– eta Benito Mussolini ere hil ondoren berriro *hil* zituzten.

XVI. eta XVIII. mendeen artean Herbehereetako borrarroak oso lanpetuta ibili ziren, deliturik txikiengatik kondenatutakoak ere urkamen dira eramateko joera zabaldu baitzen. Europa ia osoa hartu zuen asaldura erreformistaren ondoren, Herbehereetako eliza erreformatuarentzat suizidioa delitu larrienetakoa zen, deabruaren tentaldian erori izana adierazten baitzuen. Eta, jakina, beren buruaz beste egin zutenei heriotza zigorra ezartzen zieten.

Garaiko kronika batek dioenez, 1668ko ekainaren 23an gizon batek emazteari dirua eskatu zion pattarra erosteko. Emaztearen ezezkoa jasota, senarrak esan zion: “Deabruak eraman nazala nire burua urkatzen ez badut”. Eta emazteak: “Beti berdina esaten duzu. Egin ezazu nahi duzuna”. Ordu batzuk geroago emazteak senarraren gorpua aurkitu zuen. Handik hiru egunera gorpua berriro urkatu zuten jendaurrean, Volewijken, Amsterdametik gertu.

Esan beharra dago gaixotasun mentalak aringarritzat jotzen zituztela, egun bezala. Hala, epaitua erotuta zegoelako suizidatu zela frogatuz gero, epaileak exekuzioan ankerkeria eta laido publikoa arintzeko eskatzen zuten, nagusiki kondenatuaren familia gogoan. Kondenatuari berari ez zitzaien axola izango. ■


Arrastoak

Rosetta harriaren “ahizpa” aurkitu dute

TABUZIRIS MAGNA aztarnategi arkeologikoan, Alexandriaren hego-mendebaldean (Egipto), Dominikar Errepublikako arkeologo talde batek idazkuna dituen harlauza topatu du. Mamdouh Al Damati Egiptoko Antzinate ministroak adierazi duenez, aurkitutako piezak 2.200 urte inguru ditu, eta beraz, Rosetta harriaren garai berekoa da, Ptolomeo V.aren erregealdi ingurukoa (k.a. 204-180).

Rosettarekin duen antzekotasun nagusia da hieroglifikoez gain bestelako alfabetoetan idatzitako testuak jasotzen dituela. Kasu honetan, alfabeto demotikoan, herritar xeheek erabiltzen zuten idazkeran idatzitako bost lerrotan jasotzen da hieroglifikoen edukiaren itzulpena. Edo hori uste dute adituek, testuak ez baitituzte oraindik erabat dezifratu.

Harria metro pasatxo luze eta 65 zentimetro zabal da, eta Rosettarekin duen alde nagusia da harlauza berriak ez duela grezierazko itzulpenik. Gainera, Rosetta askoz lehenago aurkitu zuten, eta funtsezkoa izan zen idazketa hieroglifikoa dezi-fratzeko. Ikusteko dago testu berriak zenbaterainoko ekarpena egingo duen zentzu horretan. ■



EGIPTOKO ANTZINATE MINISTERIOA

«Ez dugu kontuan hartzen gobernuaren Parlamentutik sostengatzea»

EH Bilduko Nafarroako Gobernurako hautagaia da. 2002tik Sakanako Mankomunitateko gerentea da, baina iragan irailean eszedentzia hartu zuen hauteskundeetan burubelarri jarduteko. 1961ean Tafallan jaioa, abokatu lanetan aritu da urte luzez. HBko parlamentaria izan zen 1991tik 1997ra, honen Mahai Nazionaleko auziagatik espetxeratu zuten arte.

| XABIER LETONA |

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Nola ikusten duzu Legebiltzarra 90eko hamarkadarekin alderatuta?

Aldatuta. Gure garaian, bakoitzaren lana eta Parlamentukoa bateratu behar genituen eta orain parlamentariak badute denbora gehiago euren lana egiteko. Lehengoak bazituen bere abantailak, baina oraingoa egokiagoa dela uste dut. Horrez gain, Parlamentua aktiboago ikusten dut, sozialki aktibatuago.

Eta parlamentarien arteko giroa?


Alde horretatik ez dut aldaketa handirik sumatu. Lehen parlamentarien arteko harremanak nahiko normalak ziren, orain agian zerbait normalago.

Bigarrenengo aldiak ez direla onak dio gaztelarazko esaera zaharrak. Beldurrik?

Ez eta gainera niretzat ez da itzule-
ra bat, orain arte ere hori egon naiz
eta. Lehen makina gelan eta orain
leman, baina itsasontzi berean. EH
Bilduren proiektua dago hor eta
horrek animatu nau pauso hau
ematera.

Ikusten duzu zure burua Nafarroako Gobernuaren lehendakari?

Bai, dudarik gabe. Horretarako
aukeratu naute eta nire burua ere
horretarako ari naiz prestatzen.



Araizen esanetan, Euskal Bideak ez du kontuan hartzen EAEk independentzia bakarrik aldarrikatzea.

Zu HBko historiko bat zara Nafarroan. Zer esango zenioke HBrekin eta ezker abertzalearekin mesfidati egon ohi den herritarri?

Abertzale izan, abertzaletasunaren ingurukoa edo ezkertiarrek diren herritar guztiei eskatuko diegu botoa. Esango diegu aukera historikoa dugula eta erregimena erori eta egiazko aldaketa politiko eta soziala emateko bermerik egokiena gu garela. Gu fidatzeko pertsonak gara, esaten duguna egiten dugu. Fidelak izango gaitzaizkio botoa ematen digun horri.

Podemos zer da, EH Bilduri botoak ken diezazkiokeen alderdia edo balizko gobernu baterako aliatu politikoa?

Aliatutzat jotzen dut. Orain arte Nafarroan esaten dituztenekin bat egiten dugu oro har eta horiek guk aspalditik esaten ditugu hemen: prozesu konstituziogilea irekitzea, trantsizio berria, eliteen aurka egitea, justizia soziala, udaletarako aipatzen duten herritarren batasuna... Aliatu dira, Nafarroan aldaketa emango bada, aldaketa hori anitza izango delako.

Herritarren batasuna aipatu duzu. Posible ikusten duzu Nafarroako hegoaldean eratuko diren hautagaitza horietan elkarrekin aritzea Podemosekin?

Toki askotan egingo dugu bat, baina ez Podemos edo EH Bildu gisa, herritarrek bildu egiten direlako baizik. Fiteron, Cintruénigon, Herriberrin... eman ohi diren herritarren hautagaitza horietan gu izan gara eta orain ere izango gara, eta Podemosen inguruan ari den jendea ere hor izango dela uste dut.

Beste hauteskunde batzuetan baino gehiago areagotuko ote dira hautagaitza hauek?

Baietz uste dut, orain arte hainbat jendek ez du halakoetan parte hartu eta oraingoan animatuko da.

Zuk aipatu duzu, ideiei begira gauza askotan egiten duzuela bat. Ez diozue beldurrik Podemosen eraginari?

Ez, gure proiektu politikoa Nafarroako gizarteari zuzendua dago, baina gure izanak dioen bezala gu Euskal Herri osoaz ari gara. Gure

**Euskararen legea:
“Badugu autokritika
egin beharra 1995ean
izandako jokaeraz,
orduan orain egin den
aldaketa proposamen
berdintsuari ezetza
eman genion eta”**

prozesu konstituziogilearen subjektua Euskal Herria da eta Podemose-na Espainia.

Esaten da Laura Perezi ezker abertzaleko jende askok eman diola botoa internetez. Egia ote da?

Ez dakit, baina ez dut uste. Guk behintzat ez dugu inongo mugimendurik egin horretarako; esan da hori, baina goitik behera ukatzen dugu. Estatuko zuzendaritza onartzeko primarioetan ere orain beste jendek parte hartu zuen.

Inkestak sukaldatzerakoan eskuinaren botoa ezkututzen ari dira?

Herritarrek esan beharko dute, baina maila sozialean bada aldaketa-rako grina eta alderdiei dagokigu hori aldaketa politiko bihurtzea. Aldaketa emateko aukera asko dago. Inkestek hainbat argazki jarri dute mahai gainean eta uste dut Navarrometroarena izan dela desfokatuena.

Balizko gobernu berriak oposizioko hainbat alderdiz osatua beharko luke. Bi hipotesiz hitz egiten da: bat, EH Bildu barruan da; bi, EH Bilduk Legebiltzarretik sostengatzen du Gobernua. Emaitzen zain, posible ikusten duzu bigarren hori?

Une honetan ez dugu kontuan har-

**“Euskal Bidean lehenik
Hegoaldeko bi
errealitateen bat egitea
proposatzen da, eta
orduan bai, Estatu
Espainiarrari ariketa
demokratikoa
planteatzea”**

tzen bigarren hipotesi hori. Aldaketa emateko UPN, PSN eta PPNk ez dute 26 eserleku lortu behar. Hori ematen bada, aldaketak anitza izan behar du eta bazterketarik gabekoa. Gobernua osatzekotan gu ez gara hasiko lehendakariaz hitz egiten, lehenik programa adostu beharko da eta ondoren, emaitzen arabera, bakoitzaren ordezkariez hitz egin. Herritarrek ematen badigute, gu prest gaude lidergoa hartzeko.

Alderdi politikoen artean hitz egiten ari zarete alde zaureratik aukera horri buruz?

Duela urte eta erdi eskaintza bat egin genien Geroa Bai eta Ezkerrari ezberdinen arteko akordio bat lortu ahal izateko. Uste dut eskema horrek balioko lukeela programa adosteari buruz hitz egin beharko bagenu. Harreman zuzenak ditugu haiekin eta ez gara gobernuaz hitz egiten ari, baina bai aldaketaz. Podemosek orain finkatu du bere ordezkartza ofiziala eta izango dugu aukera haiekin ere hitz egiteko.

Jarrai dezagun irudimenarekin sueltot. Gobernuan izanez gero, Foru Hobekuntzaren erreforma bultzatu beharko litzateke?

Gure lehentasuna emergentzia sozialari aurre egitea litzateke. Nafarroaren erabaki eskubidea mahai gainean jarriko dugu, eta epe bati begira herritarrei kontsulta egin beharko litzateke, baina hori ez da orain gure lehentasuna.

Egungo Foru Hobekuntza ez da inoiz bozkatu. Orain hori lortuko balitz, zer bozkatuko luke EH Bilduk?

Guk bere garaian ezetza eman genion Foru Hobekuntzari. Horri buruz hitz egin behar bada, Nafarroaren estatus politikoa aritu beharko dugu, eta sekula eman ez den eztabaida egin. Nafarroak inoiz ez dio eman zehazki baietza egungo Foru Hobekuntzari. Bitartean, Foru Hobekuntzaren eskumenak baliatu behar dira eremu sozial eta politikoa aurrera egiteko eta, funtsean, beste eszenatoki politiko bat lortzeko.

Balizko gobernu horretan nola uztartuko litzateke Euskal Bidea gobernuaren jardunarekin?



“Nafarroan aldaketa emango bada, aldaketa hori anitza izango da”.

Euskal Bidearen aurretik dago nafar bidea eta hor planteatzen da dauzkagun eskumenetatik abiatu behar dugula. Eskumen horietan badira orain arte erabili ez diren potentzialitateak eta horiek baliatuz Nafarroako estatus juridikoari buruzko oinarriko legea egin beharko litzateke, besteak beste gainerako euskal lurraldeekin izan nahi diren harreman politiko-instituzionalak finkatzeko, beti ere kontuan izanik Nafarroa subjektu politiko dela. Orduan hitz egingo litzateke EAEn egindako antzeko prozesuaz bat egin nahi den.

Orain indarrean dagoen Laugarren Xedapen Iragankor ospetsuak ematen du horretarako aukerarik.

Ez, hor hitz egiten da Nafarroa EAEn integratzeaz eta ez da hori

kontua. Guk fusioaren eredua nahi dugu, bi errealitate politiko eta instituzionalak dituzten erkidegoak bat egitea eta beste errealitate politiko eta instituzional berri bat sortzea.

Hau da, ezin da tresna hori erabili.

UPNk historikoki aldarrikatu du Nafarroa izango dela nafarrek nahi dutena, baina zirrikitu hori ere eza batu nahi du, nafarrei horretan ere hitza kenduz. Une batean gure helburuetarako potentzialitatea balu pentsatu beharko genuke zer egin, baina hori ez da gure bidea.

Euskal Bidean esaten da EAEk, Nafarroak eta Ipar Euskal Herriak beren bidea egin behar dutela Euskal Herri batu eta independenterantz. EAEn une batean borondate nahiko balitz,

ondo legoke hark independentzia aldarrikatzea?

Hori ez da gure bidea. Euskal Bidean lehenik Hegoaldeko bi errealitateen bat egitea proposatzen da, eta orduan bai, Estatu espainiarri ariketa demokratikoa planteatzea. Bitartean halako ariketarik ez egitea aurreikusten da.

Jose Mari Esparzak idatzi duen artikululu batean oso kritika gogorra egin berri dio abertzaletasunari –baita ezker abertzaleari ere–, Nafarroako hegoaldean izan duen eta duen jokamoldeagatik.

Bai, bere molde zorrotzez hala egin du, eta badira bi errealitate desberdin Nafarroan, Lizarra-Tafalla-Zangoztza lerrotik beherakoa eta gorakoa. Egia da Tafalla eta Caparrosoko errealitateak oso desberdinak direla, hala ere, aldaketarik izatekotan, bertako herritarrek bultzatutakoa izan beharko da eta ez kanpotik. Ni ez nago batere ados paratxutisten politikarekin.

Errealitate desberdin horien aurrean ezker abertzaleak politika homogenizatzaileak erabili dituela dio Esparzak. Egia dela uste duzu?

Zentzu batean agian bai. EH Bildun gauden indarrak hausnarketa egiten ari gara horri buruz eta hainbat gauza planteatuko dira. Erregimenaren urte askotako eragina ere hor dago eta Nafarroan aldaketa emango balitz, euskal abertzaletasunaz eta euskarari buruz Nafarroako hegoaldean dagoen irudia dezente aldatuko litzatekeela uste dut.

28 urte behar izan dira Euskararen Legean oraintsu egin diren aldaketak egiteko. Aldaketa txikia edo handia da?

Batzuentzat txikia eta besteentzat handia. Aurrerapauso oso garrantzitsua da, baina duela 28 urte bezala orain, guk uste dugu benetako aldaketa zonifikazioarekin amaitzea dela. Hala ere, uste dut badugula autokritika egin beharra 1995ean izandako jokaeraz, orduan orain egin den aldaketa proposamen berdintsuari ezetza eman genion eta.

Autokritika zein zentzutan?

Orduan gaizki egin genuela onartzeko. ■

Giro nahasia politika aldaketaren atarian

Hil honen 22an eta 29an izanen dira Pirinio Atlantikoetako bozak, bi itzulitan ohi bezala. Alta, boz hauek kantonamendu kopuruan eta hautagaitzen eraketan aldaketak ekarri dituzte: 27 kantonamendu dira departamenduan, hauetako hamabi Ipar Euskal Herrian, lehen 21 ziren. Hautagaiak parekideak dira hauteskunde-barruti bakoitzean: emazte eta gizon kopuru bera.

| MIKEL ASURMENDI |

PAUEKO KONTSEILU NAGUSIKO egiturak berrituak izanen dira bozen ondoren. Erregioen –eskualdeak– egituratze berriak aldaketak ekarriko ditu departamenduetan. Bi egituren eskumenetan aldaketak izanen dira –NOTRe legearen arabera garatzen ari dira–, baina ez dira zehatz-mehatz ezagutzen. Gizarte laguntzetan, azpiegituretan eta hezkuntzan aldaketak izan litezke departamenduen kaltetan, antza.

Biarno eta Ipar Euskal Herria daude Pirinio Atlantikoak departamenduan. 2015eko aurrekontua 803 milioikoa da, azken gobernu kontseiluak onartua. Egungo presidente Georges Labazée (PS) ez du bere burua aurkeztu. Bera da departamenduko lehen presidente sozialista. Hauteskundeotan, 143 dira hautagaiak eta horietako 108 berriak; 76 dira euskal hautagaiak. Kontseilu Nagusiko hautetsiak 52 dira, eta orain arte, zortzi baino ez ziren emakumeak. Aurrerantzean, 27 emakume eta 27 gizonak beteko dituzte Paueko Kontseilu Nagusiko aulkiak, Nafarroako Parlamentua ere deitua.

Alderdien hautagaitzak


Amaitu berri den legegaldian, historian lehen aldikoz, PS izan da indar politikoa nagusia departamenduan. Alabaina, PSko oraingo boz zerrendetan ez dago Georges Labazée biarnesa, ez Frantxoa Maitia garaztarrak, ezta Atharratzeko Arnaud Villeneuve auzapeza ere. Hendaiaiko auzapez eta departamenduko lehen-

dakariorde Kotte Ecenarro jalgi da lider berri gisara. Chantal Kehrig-ekin aurkeztu da Hendaiaiko hauteskunde-barrutian. Donibane Lohizuneko Jean Henri Aguerretche-Julie Bergara, Baionako Henri Etcheto-Marie Chistine Aragon eta Juliette Brocard-Christophe Martin bikoitek ere pisu handikoak dira alderdi

sozialistan. PSk Europe Ecologie Les Verts taldearekin akordioa lortu du zenbait kantonamendutako zerrendetan; Baionan eta Bidaune-Amikuze-Oztibarren, adibidez.

Eskuinak eta zentroko alderdiek historikoki kudeatu duten departamenduko boterea berreskuratu nahi dute. UMP eta Force64 alderdiek

Ipar Euskal Herriko kantonamenduen mapa berria



Lehen hogeita bat
kantonamendu ziren,
orain hamabi.

bat egin dute horren xedez. Jacques Laserre presidente zentrista ohia, Bidaxune-Amikuze-Oztibarre kantonamenduan aurkeztu da berriz ere, Anne Marie Bruthekin batera aldi honetan. Miarritzen Max Brisson eta Maider Arostegui dira hautagai nagusiak. Donibane Lohizunen bi bikote daude eskuinaren izenean: Ziburuko axuanta Isabelle Dubarbier da ezagunena. Angeluko Claude Olive auzapeza Baionako 1. kantonamenduko hautagaia da. Landa edo baserri munduan, zentro-eskuineko beste izen ezagunak hauek dira: Beñat Inchauspe Hazparnen, Vicente Bru Uztaritzen eta Pepela Mirande Zuberoan.

Euskal Herria Bai (EH Bai) hautagaitza abertzalearen lema *Herrian bizia, lan egin eta erabaki* da. Lurralde Elkargoa eta aldaketa sozioekonomikoa aldarrikatzen ditu. Iparraldeko hamabi kantonamenduetan soilik aurkezteak Kontseilu Nagusiko aulkien erdiespen kopurua mugatzen dio. Bidaxune-Amikuze-Oztibarren Anita Lopepe-Xabi Larralde bikotea da buruan buru. Donibane Lohizunen, berriz, Peio Etcheverry-Ainciart eta Leire Larrasa dira lehen hautagaiak. Hiriburuko auzapez Alain Iriart –egungo kontseilari abertzale bakarra Pauen– Errobi Aturri kantonamenduan aurkeztu da, Fabienne Ayensa da bikotekidea.

EAJ lau kantonamendutan aurkeztu da. Jean-Michel Iribarne eta Itxaro Bethart Uztaritze-Errobi barrutian. Francis Gellie eta Nicole Terunad Urdazurin. Donibane Lohizunen Gaxuxa Elhorga eta Jean Pierre Etcheverry. Hendaia-koan, berriz, Jean Tellechea eta Itziar Aizpuru. Jeltzaleen asmo behinena herritarrengana iristea da. *Zuekin hemen!* dute kanpainako lema.

Alderdi edota mugimendu horien hautagaitzen bi aldeetara Fronte Nazionalea (FN) eta Ezkerreko Frontea daude; bi muturretan. Kantonamendu guztietan aurkeztu ez arren, *Le Pen* markako zerrendek ustekaberen bat eman lezakete. Ezkerreko Fronteak, berriz, Hendaia eta Baiona aldean dauka atxikimendu gehiena.

Giro nahasia

Hauteskunde hauen berezitasunak berretsi ditzagun: kantonamendu



DANI BLANCO

Anita Lopepe EH Baiko eleduna. Ezker abertzalearen hautagai nagusietako bat. Lehen aldikoz, hautagaitzak parekideak dira Frantziako Estatuko bozetan.

edo hauteskunde-barrutien kopurua gutxitu izana eta hautagaien parekidetasuna. Departamenduetako azken bozak izan litezke hala berean. Ipar Euskal Herriaren kasuan –Pirinio Atlantikoak desagertuko direlakoan–, tokiko zenbait jardura politiko Pauko Kontseilu Nagusitik Bordeleko Kontseilu Nagusira iragan litezke. Alta, orai-

Hexagonoko hauteskunde nagusietan abstentzioa goiti ari da, eta herritarrengandik hurbilago dauden instituzioetarako bozetan ere abstentzioaren mamua ageri da

nokoan ez dira ezagutzen erregioetako eta departamenduetako eskuimen politiko berriak. Horiek horrela, kanpaina gorabeheratsua iragarri dute politikariek. Egoera hau ez da ere kezka bakarra alderdi politikoentzat. Hexagonoko hauteskunde nagusietan abstentzioa goiti ari da, eta herritarrengandik hurbilago dauden instituzioetarako bozetan ere abstentzioaren mamua ageri da.

Frantziako instituzio nagusietan ezkerre da nagusi uneon, PS buruan buru: Asanblea Nazionalean, Eliseon (François Hollande presidentea) zein Matignonen (Manuel Valls lehen ministroa). Akitaniako eskualdeko buru Alain Rousset da eta Georges Labazee jokoan dagoen departamendukoa. Pirinio Atlantikoetako presidenteak berak ezkerre irabaztea zaila ikusten duela adierazi du publikoki.

Ezkerren politikaren porrotaren ondoren, eskuinaren itzulera sumatzen da. Kontseilu Nagusia eskuinaren esku baino, zentro-eskuinaren esku egon da, departamenduko buru ohi François Bayrou ikur nagusia izaki. Zentro-eskuinaren aliantzak Kontseilu Nagusiaren gidaritzara berreskuratzea errazten du. Halaber, FNren emaitzek argituko dute eskuindar bozemaileen joera, baita ezker muturreko emaitzen joera agertuko ere.

EH Bai eta EAJ itxaropentsu agertu dira aurre-kanpainan. EAJ bere izenean aurkeztu da, eta horrek emango du bere ahalmenaren benetakoa neurria. EH Baik, bestalde, Euskal Herriaren garai berrian oinarritu du kanpaina. Alain Iriart hautagaiaren erranetan, EH Baik gora egingen du eskualde guztietan.

Martxoaren 9an abiatu da kanpaina. Aspaldi igurikatzen den politika aldaketaren atarian giro politikoa nahasia da. ■

KARRANTZAKO MINDEN ESKANDALUA

Erantzukizunak argitu gabe daude bost urte geroago

Karrantzako minda plantaren auziatik erantzukizun penal eta politiko eskaria areagotu egin da azken hilabeteetan. Berriki, Balmasedako epaile batek –lehenago Bilboko batek egin bezala– esan du delitu zantzu argiak daudela inoiz eraiki ez zen planta horren kudeaketaren inguruan, baina auzia beste epaitegi batek eraman behar duela. Bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak bere jokabidea une oro zuzena izan dela adierazi du. Eskandaluaren gakoak azalduko dizkizugu ondorengo lerroetan.

| UNAI BREA |

Argazkia: Marisol Ramirez/Argazki Press

138 KILOMETRO KOADRO ditu Karrantzak –Bizkaiko udalerrri zabalena da–, baina 2.800 lagun inguru besterik ez dira bizi bertan, hain hementi barreiatutako pare bat dozena herrixkatan. Lehen sektoreak indarra du oraindik. Abelburuak erruz aurkitu daitezke karrantzar pentzeetan, eta haien ustiapenetik eratorritako mindek –jatorri organikoko hondakinek– hainbat ingurumen arazo eragiten dute. Horri irtenbidea, Eusko Jaurlaritzak ekimen bat abiarazi zuen duela hamar-kada pasatxo.

Ekimen haren ondorioz Karrantzako Minda S.L. enpresa sortu zen 2005ean. Haren egitekoak ziren mindak tratatzeko planta bat eraikitzea eta, ondoren, plantaren kudeaketa bideratzea. Eraikitze-lanak finantzatzeko diru-laguntza publikoak eskatu zituzten hainbat administrazioetan (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernua), baita hamar milioi inguru euro jaso ere, 2006 eta 2009 artean. Gaur egun diru horren arrastorik ez dago, eta plantaren eraikitze lanak ia hasi bezain laster eten zituzten, 2010eko udazkenean, zer eta diru faltagatik. Obrak hasi zirenerako –2010eko apirila–, diru-laguntzak kobratuta zeuden. Nora joan zen dirua?

Ustezko delituak

2012ko azaroan aldaketa eman zen Karrantzako udal gobernuan: Karrantza Zabala taldeak –orain alkatetzan– eta Bilduk EAJko alkatetaren aurkako zentsura mozioa onartu zuten. Iazko urrian, gobernu talde berriak kereila aurkeztu zuen, Karrantza Haraneko-Valle de Karrantza 2006 S.A. udal enpresaren bitartez, ustezko hainbat delitu egotziz minden tratamendurako planta kudeatzeko ardura zutenei, hala nola tartean ibili zen kargu publikoren bati, berehala ikusiko dugunez. Dagoeneko epaitegi bik aintzat hartu dituzte kereilan esandakoak, eta delitu zantzu nabarmenak ikusi dituzte.

Kereilaren tesietako bat da Karrantzako Minda S.L. enpresa, itxura batean planta eraikitze sortu zena, pantaila hutsa besterik ez zela. Erabakiak hartzen zituena eta, azken batean, prozesu osoan protagonismoa izan zuena Ade Biotech S.L. zen. Ade Biotech eman zituen hasierako txostenetarako datuak, Ade Biotech arduratu zen planta eraiki behar zuten enpresak aukeratzeko, eta, azken beltzean, Ade Biotech hartu behar zuen bere gain plantaren kudeaketa lehenbiziko hogeitaz urteetan. Zertarako,

orduan, Karrantzako Minda S.L. sortu?, irakur daiteke kereilan.

Plantaren kudeaketarako hogeitaz urteko kontzesioari dagokionez, komeni da gehitzea Ade Biotechek ziurtatuta izango zituela irabaziak edozein kasutan: Karrantzako nekazariak minda nahikoa eraman ezean, Jaurlaritzak gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatuko zizkion enpresari. Ez zen horrelakorik gertatu, jakina, planta ez baitzen eraiki, eta nekez eraikiko da.

Faktura faltsuak diru-laguntzak justifikatzeko

Otsailaren 24an, Bizkaiko Batzar Nagusietako Ingurumen eta Nekazaritza Batzordeko bileran, Irune Soto Bilduko batzarkideak esan zuen minden tratamendurako proiektua diru publikoa bereganatzeko baliatu zutela, hasieratik, EAJtik hurbileko hainbat enpresak. Bereziki, Ade Biotech. Administrazioetatik jasotako diruaren zati handi bat enpresa horri ordainketak egiteko baliatzen zuen Karrantzako Mindak, zer ordaindua ez egon arren.

Espainiako Gobernutik lau milioi euro jaso zituen Karrantzako Mindak, beste horrenbeste Eusko Jaurlaritzatik, eta bi milioi Bizkaiko Foru Aldunditik. Hamar milioi, guztira.



Minden tratamendurako planta izan behar zenaren egoera gaur egun. 2010eko apirilean hasi ziren eraikitze lanak, eta urte hartako irailean eten —obren heren bat egitera ere iritsi gabe—, diru faltagatik.

Aipatutako kereilan esaten denez, datu faltsuak eman ziren diru-laguntza horiek eskatzeko, eta faktura faltsuak eman ziren jasotako diru-laguntzen justifikazio gisa. Besteak beste, eraikitze lanetan ustez egindako hainbat gastu justifikatu ziren Karrantzako Mindak igorritako dokumentazioaren bitartez, agerikoa zenean lanak hasi gabe zeudela. Bide batez, kereilak azpimarratzen du administrazio publikoak kontrol falta nabarmenarekin jokatu duela auzi honetan.

Martin Ascacibar

Kereilan salatutakoen izen zerrenda, bai pertsona fisikoena bai elkarteena, luzea da, baina izen bat gailentzen da besteen gainetik: Martin Ascacibarrena. Gezurra dirudi, baina Ascacibarrek zelaiaren alde bietan jokatu izan du diru-laguntzen partidua, nola emailenean hala hartzaileenean.

2005ean, Ascacibar Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Ikerketako zuzendaria zen. Kargu horretatik, mindak tratatzeko planta eredu buruzko txosten bat eskatzeaz arduratu zen. 2008an, Karrantzako Minda S.L.-k Jaurlaritzari diru-laguntza eskatu zionean, diru-laguntza horren Jarraipen Batzorde bat eratu zen, eta Ascacibar bertako kide izendatu zuten —guztira bi per-

tsona besterik ez zeuden batzorde hartan—. Kontua da aurreko urteko abendutik, Ade Bioteceko kontseilaria ere bazela. Hortaz, primeran jakin behar zuen diru-laguntza eskariak funtsik ez zutela, finantzatu behar zuen ustezko aktibitatea, egiazki, ez zelako ematen ari.

Ascacibar 2009ra arte egon zen Jaurlaritzan, eta Karrantzako Mindari diru-laguntza ematean parte hartu zuen. Kargu publikoa utzi eta bost hilabetera Karrantzako Mindan sartu zen, kontseilari. Kereilak hainbat delitu egozten dizkio, besteak beste diru publikoaren erabilera okerra.

Epaileek baietz, baina...

Esan bezala, iazko urrian aurkeztu zuen Karrantza Haranekok kereila, epaitegi bitan, Bilbon bata eta Balmasedan bestea. Bi epaileek —Balmasedakoak, orain dela pare bat aste— antzeko erantzuna eman dute: delitu zantzu nabarmenak daude, baina ez dute kereila onartzen. Kasu bietan argudioa bera da: ez dagokie beraiei salatutako gertakariak epaitzea. Bilboko 4. Instrukzio-Epaitegiak emandako autoan irakur daitekeenez, ustezko delituak hainbat lekutan jazo dira, baina haien hierarkiagatik komenigarriagoa da auzi osoa Gasteizen epaitzea, eta ez Biz-

kaian. Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak daude tartean, noski.

Bide judizialak norantz egingo duen argitzen den bitartean, eskandaluak arlo politikoan eman du zeresana azken boladan. Lehenago aipatu dugun Bizkaiko Batzar Nagusietako agerraldian, Bilduko Irune Sotok kontrol falta eta iruzurraren egileekiko jarrera epela izatea leporatu zion Irene Pardo Ingurumen diputatuari. Hain zuzen, diru-laguntzak itzultzea oso berandu eskatu izana aurpegiratzten dio Bilduk Aldundiari: plantaren obrak eten eta urte eta erdira. Bilduko kide batek aldizkari honi adierazi dioenez, susmoa dute Karrantzako Minda enpresari zordunen lehiaketan sartzeko denbora eman nahi ote zioten.

Irene Pardok erantzun zuen Aldundiak egoki jokatu duela auzi honetan, eta eskari guztiak lege barruko epeetan egin dituela. Diputatuak esan zuen zordunen lehiaketa ebatzitakoan erabakiko duela Aldundiak zeintzuk izango diren hurrengo urratsak. Zehaztapen gehiagoren faltan, EAJK, PSEk eta PPK lehenbizikoen proposamen bat onartu zuten, emandako diru-laguntzak itzultzea eta dagokion orori erantzukizunak eskatzeko. Bildu abstenitu egin zen.

Dena epaileen esku, beraz. ■

AMERIKAKO HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK

«Mugimendu euskaltzalea ezagutzea senide batekin topo egitea bezala izan da»

“Zertarako lorpen guztiak, hizkuntzarekin batera nortasuna galtzen badugu?”. César Pilataxi kitxuaren gogoetak zabaltzen du *Beltzean Mintzo: Ameriketako jatorrizko hizkuntzen arnasaz dokumentala*. Zer ari da gertatzen Atlantikoaren bestaldean? Euskaldunon esperientziak zer ekarpen egin dezake? Garabide elkarteak ondu du dokumentala.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |

GARABIDEREN eta HUHEZI fakultatearen *Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak* aditu titulua egitera Euskal Herrira etorritako hainbat kide dira *Beltzean Mintzo* dokumentaleko protagonista. 45 minututan ondorengo hizkuntza komunitateak ordezkatzeko dituzte: kitxua, nasa, nahuatl, kaqchiquel, aimara, maputxe eta maia yukatek.

Dokumentalaren lehen zatian, egoeraren gordina azaltzen dute: “Transmisioa moztu egin da”, “Atzerapenaren sinbolo bilakatu dituzte bertako hizkuntzak”, “Kitxua berehalako galeran sartu da”, “Gurasoek haurrei beren hizkuntza erakusteari utzi diote”, “Bel-durra daukagu”...

Gaztelania eta portugesa nagusi diren Hego Amerika eta Erdialdeko Amerikan, ehunka hizkuntza hitz egiten dira. Dokumentalak zazpi handienak jaso ditu, eta denen artean hamabost milioitik gora pertsonaren mundu ikuskera ordezkatzeko dute. Horien egoera hain larria bada, galdera tristea geratzen da egiteko: nola ote daude gainontzeko ehunka hizkuntza eta milioika hiztunak?

Hizkuntza da kulturaren ardatza

“Maiatz dena da atseginago”, “Ketxua hizkuntza gure bizimodua da”, “Itzuli ezin diren hitzak dauz-

kagu hizkuntza guztietan, eta itzuli-ta ez dute esanahi edo karga bera”.

Dokumentalean aipatzen ez badituzte ere, gaztelaniaren izenean mendeetan eragindako zigor eta mota guztietako umiliazioek ziur izan dutela eraginik herri hauek hizkuntza beren kulturaren ardatz nagusitik ateratzeko.

Gaztelania eta portugesa kenduta, Hego Amerikako eta Erdialdeko Amerikako zazpi hizkuntza handienak horren egoera larrian badaude, nola ote daude gainontzeko ehunka mintzairak eta milioika hiztunak?

“Nasa herriak lurraldearen defentsan oinarritu du kultura azken urteetan, eta hizkuntza bigarren mailan geratu da”, dio Viviana Gonzálezek. Errituak, egutegi propioak, musika eta tradizioak mantentzen dituzte orokorrean denek, baina ados daude, mundu ikuskera propioa hizkuntzak ematen du.

“Askotan gertatzen da geure hizkuntzari buruz kolonizatzailearen hizkuntzan aritzen garela”, dio penatuta Marisol Cabrera aimarak.

Lan ildoak identifikatu eta ekin

Diagnosi ilunetik, ordea, lan esparruetara igarotzen dira. Asko dago egiteko: hezkuntza sistemak garatu, hizkuntzak modernizatu, alfabetoa bateratu nahuatlen kasuan, hizkuntzak teknologia berrietara egokitu, herri ekimeneko hedabideak sortu, erakundeetan hizkuntzaren aldeko jarrerak indartu... “Mundua gure hizkuntzan bizitzeko baliabideak jarri”. Eta kontzientziak piztu. Harrotasuna transmititu.

“Ikaragarri gustatuko litzaidake maiatz bizitzea. Esmatzen naizenetik, gure hizkuntzan egunkari bat irakurri, telebista ikusi, haurra bere hizkuntzan heziko duten eskolara bidali... eta batez ere, maia hiztunek ez dezatela beren buruaren penarik sentitu”.

Garabideko kideek Mexikon 60 bat nahual herriarrekin batera ikusi zuten dokumentala eta ikus-entzunezkoaren egileek adierazi dutenez, hunkigarria izan zen proiektioa. Asko negarrari eutsi ezinik egon ziren lana amaitu bitartean. Euskaldunontzat bezala, herri askorentzat mendeetan jasandako kultura zapalkuntza zauri sakona da.

Euskararen herria senide

“Munduari erakutsi diozue posible dela hizkuntza bat berreskuratzea”, “Inspirazio ederra”, “Euskara oso erreferente garrantzitsua da”, “Miresmena eragiten didate euskaldunek. Ausartak izateaz gain, bisioa izan dute”. Ahizpa, arreba edo anaia handia.

“Niretzat, kitxua honentzat, euskararen herria ezagutzea, familiarekin topo egitea bezala izan da”. Beren burua islatua ikus dezaketen herri bat deskubritu dutela nabarmentzen dute dokumentalean hainbatetan. Euskaldunon eta herrion antzeko mundu ikuskera aipatzen dute: “Kosmobisioa”.

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik; baiezta-pen horrek barru-barruan ukitu nau”; “Euskaldunok zirrikutua ireki diguzue. Azken 50 urteotako borroka eredu da guretzat”; “Euskal Herrian egon ostean, nire izaera kitxua indartuta noa, zuen laguntzarekin bidea egingo dugu”.

Munduko 7.000 hizkuntzetatik erdia mende honetan desagertuko dela diote aditu batzuek. Denok penatzen gaitu albisteak, eta zientzialariak batean eta bestean desagertzear dauden hizkuntzen azken arrastoak erregistratzen ari dira. Inor gutxi ari da baina, hizkuntzen arteko berreskuratze teknika horizontalak eraikitzen. Komunitateetako gizarte zibilen artean zubiak eraikitzen, herri gutxietsiak ahalduntzen. Garabidek honetan dihardu.

Ez direla 18 pertsona diote dokumentaleko protagonistek, beren hizkuntza galdu nahi ez duten 18 herri baizik. “30-35 urte barru itzuliko gara esateko: ‘Begira, gure haurrak beren hizkuntzan ikasten ari dira, hauek dira zuek irakatsi zenigutenaren fruituak”.

Hizkuntzaren alde lan egitea justiziaren alde lan egitea dela uste dute.



Carmen Curihuentro maputxea Euskal Herrian izan da, Garabidek gonbidatuta.

Herri indigenek milaka urtetan garatu dituzten kultura eta hizkuntzak bazterrean utz al daitezke? Hori al da lankidetza? Euskaldunok, umiltasunetik, metatutako esperientzia partekatzeko ardura daukagula uste du Jon Sarasua dokumentaleko zuzendariak.

Eta emaitzak ematen hasi da. Bi aipatzearen, Ekuadorren hizkuntzen legearen aurreproiektua aurrera atera dute, haiek aitortu dute Euskal Herriko esperientziak eragin duela. Kolonbian *Lunx Lesxewe* izeneko eta nasa hizkuntzan funtzionatzen duen lehen “ikastola” sortu zuten orain bi urte. Orduetik, gora doa bertara bidaltzen dituzten haur kopurua.

“Euskara korapilo unibertsal bateko kide da, eta hizkuntza komunitate gisa, funtzio bat bete dezakegu”, esan zuen Sarasua dokumentala amaitzean. Andoainen aurkeztu zuten eta proiektzioak antolatzen ari dira leku gehiagotan: Eskoriatza, Oiartzun, Durango, Azkoitia, Otxandio...

Euskara munduan kokatzeko gure etxea izateaz gain, beste hizkuntza minorizatu batzuen paisaiara irekitako leihoa ere badela diote Garabidetik. Inongo harrokeriarik gabe, gu geu ahalduntzeko eta hizkuntzaren alorrean lanean jarraitzeko beste arrazoi bat gehiago. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

MOZAL LEGEA ETA IRAITZ SALEGIREN KASUA

Mezularia zigortu nahi du Espainiako Gobernuak

'Mozal Legea' izenez ezagutzen den Herriarren Segurtasunerako Lege proposamenak, protesta baketsu ugari zigortzeko bidea irekitzeaz gain, kazetaritza jarduna ere delitu bilakatuko du. Ez da Espainiako Estatuan informazio eskubideari eraso egiten dioten lehen aldia. Topatuko kazetari Iraitz Salegiren kasua da azkena, ekitaldi baten berri emateagatik kartzela zigorra eskatzen dute.

| AXIER LOPEZ / LANDER ARBELAITZ |

EUSKAL HERRIKO 300 KAZETARI, argazkilari eta unibertsitateko irakasleak “Kazetaritza ez da delitua” manifestua sinatu dute. 59 hedabidetako kide hauek *Mozal Legearen* aurkako eta Iraitz Salegi kazetariaren aldeko jarrera hartu dute.

“Ez gaude prest legearen izenean informazio askatasuna nola desitxuratzaren duten kontatzeko”, diote. Topaturen aurkako epaiketaren bitartez kazetaritzaren lanbidea arazo bilakatu nahi duela ulertzen dute. “Guk, kazetariok, gizartearen arazoei irtenbidea bilatzen laguntzeko tresna izan nahi dugu”, aldarrikatu dute.

Salegirenaz gain, otsailean Espainiako Estatuan, kazetari lana egiteagatik atxilotuak edo epaitegira deituak izan diren Jaime Alekos eta Alicia Armestoren kasuak zabaldu dira. Lehena etxe kaleratze baten jarraipena egiten ari zela atxilotua Madrilen, eta bigarrenari beste etxe kaleratze batean barrez ari zen polizia baten argazkia sareratzeagatik salaketa jarri diote. Azken bi kasuokin *Mozal Legea* bera indarrean jarri aurretik bidea urratzen ari direla adierazi du Espainiako Kazetarien Sindikatuen Federazioak.

Zer dakar *Mozal Legea*?

30.000 euro arteko zigorra izango dute etxe kaleratzeen galarazteak, Espainiako Kongresuaren aurrean egindako manifestazioak edo Poli-

ziaren gehiegikeriak erakusten dituzten irudiak grabatu eta zabaltzeak. 600.000 euro artekoak eraikin publikoetan manifestazioak egiteak edo debekatutako manifestazioak aurrera eramateak. *Mozal Legeak* jasoko dituen neurri batzuk besterik ez dira horiek. Martxoaren bigarren astean Espainiako Senatuan onartuko dute azken orduko sorpresarik ezean, eta uztailaren 1ean indarrean sartuko litzateke.

Kazetarien aurkako epaiketa eta atxilotekin, Mozal Legea indarrean jarri aurretik, informazio askatasunari eraso egiten diote Espainiako Gobernutik, hainbat kazetari elkartek salatu dutenez

Jorge Fernández Diaz Espainiako Barne ministroaren ustez, lege horrek “eskubide eta askatasun publikoak hobeto finkatuko ditu, herriarren segurtasuna hobeto bermatu eta legez kanpokoak edo indarkeriazkoak diren zein izaera bandalikoak duten jokaerak galaraziko ditu”.

Nazio Batuen Erakundeak *Mozal Legea* eta kode penalaren erreforma

erretiratzeko eskatu dio Espainiako Gobernuari otsail amaieran. “Modu baketsuan manifestatzeko eta era kolektiboan iritzia adierazteko eskubideak jendarte libre eta demokratiko baten oinarriak dira”, adierazi dute. Oposizio guztia aurka izan arren, aurrera doa, ordea, gehiengo osoa duen PP.

Euskal Herrian hainbat eragile hasi da gaia lantzen, Eleak mugimendua, Arabako Gazteak Altxa edo Herriarren Kriminalizazioaren Kontrako Plataforma kasu. Espainiako Estatu mailan No Somos Delito mugimendua gaia sozializatzen ari da.

Eleak mugimenduaren ustez, oinarritzko eskubide zibil eta politikoek ukazioa handituko du lege berriak. “Poliziari are botere, esku-men eta zigorgabetasun gehiago emango dizkio; delitu berriak nahieran ezarriko ditu; horiek zehatz definitu gabe utzi eta erabateko babesgabetasuna sortuko du; gogorrago baina ezkutuan zigortuko du”. Azken urteotan herri harresien bueltan lanean aritu den mugimenduaren ustez “disidentzia ororen aurka arma hedakor eta trinkoa da; kalean, lehen lerroan eta egunerok nahi adina erabiltzeko diseinatua”.

Kazetaritza ere jomugan

Protesta bera zigortzearekin batera, hauei buruz informatzen dutenak ere jarri ditu begi puntuan Espainia-



CARLOS DELGADO

No Somos Delito ekimenak deitutako protesta bat, Madrilén.

ko Gobernuak. Legean zehazki jaso dute ezingo dela agenteen irudirik zabaldu horien baimenik gabe. Horrez gain, Barne ministroak adierazi du Poliziak aukera izango duela kamerak errequisatzeko, ekintza “ilegalak” egiteko badira edo Poliziaren lana egiteko oztopo direla uste badute.

Mugarik Gabeko Erreportariak elkarteko kide Malen Aznarezek kazetariei beren lana egiten jarrai dezaten eskatu die. “Lege honen aurka gaude eta gobernuko alderdia aldatzen bada, derogatu egingo dutela espero dugu, baina bitartean kazetariei informatzen jarrai dezatela eskatzen diegu, manifestazio eta eskratxeak jorratzen. Guk lege honekin egingo diren zapalkuntzak salatzaren indarra jarriko dugu eta hedabideen jabeek eskatzen diegu beren profesionalak babes ditzatela”.

Kazetarien elkarte, sindikatu eta eskolen gehiengoak adierazpen eta informazio askatasunarekin talka egiten duten lege honen aurka hitz egin du.

Nazioartean ere antzeko bideak

Europar Batasuna ere herritarren informazio eskubideari eragingo

dion neurri multzoa prestatzen ari da 2013tik hona. Filtrazioen aurka jarriko dituzte indarrak, *Corporate Europe Observatory* irabazi asmorik gabeko elkarteak.

“Enpresen izen ona kaltetuko lukeen edozein informazio edo barne dokumenturen eskuratzea, erabiltzea eta legez kanpo argitaratzea” zigortu nahi dutela salatu dute.

Europako Batzordeak sekretu komertzialari buruzko zuzentarau hau aurrera ateratzen badu, europarrak izango dira kaltetuak beren ustez, “informazioa beharrean enpresen komunikatuak jasoko baititugu”.

Frantziako Estatuan lehen saiakerak kale

Joan den urtarrilean Frantzian antzeko arau bat atzera botatzea lortu dute kazetari, prentsa elkarte, hedabide, erredakzio kontseilu, agentzia, blogari eta GKE ugarik. *Macron Legea* isilpean eta azken orduan sartu zuen Gobernuak “sekretu komertzialari” buruzko emendakina. Teorian industria espioitzaren aurka egiteko zela esan zuten arren, hiru urteko kartzela zigorrak eta 375.000 euro arteko

isunak ezarri nahi zituen “autorizaziorik gabe babestutako informazioaren ezagutza lortu, hau desbideratu edo argitaratzen du” tenentzat”.

Gainera, zigorrak zazpi urteko espetxealdira eta 750.000 euroko isunera igo zitezkeen “Estatuaren segurtasunaren aurka edo Frantziako oinarritzko interes ekonomikoen aurka atentatua” eginez gero. Frantziako kazetarien iritziz, emendakin horrek debekatu nahi zuen enpresentzat balioa duen edozein dokumentu argitaratzea. Enpresak erabakiko zukeen zer argitara dezakeen kazetariak eta zer ez. Eta kazetariak edo beren iturriak kartzelara joan zitezkeen interes orokorreko informazio bat argitaratzeagatik.

Zentsuraren hurrengo kate begia

Mozal Legea onartu aurretik ere ugarriak izan dira informazio eskubidearen aurkako erasoak Euskal Herrian. Espainiako Auzitegi Nazionalak aginduta hainbat hedabide itxi izan dute: *Egin* egunkaria, *Egin* irratia, *Egunkaria*, *Ardi Beltza* aldizkaria, *Apurtu.org* gunea eta *Ateak* Ireki berbarako. Egingeko zuzendari ohi Xabier Salutregi kartzelan da oraindik.

Iraitz Salegi, Topatu.info hedabide digitaleko kazetaria

«Kazetari guztiok lana askatasunez egiteko dugun eskubidea aldarrikatuko dut epailearen aurrean»

Urduñako Gazte Danbada Topatuz gain beste hedabide batzuetako kazetariak ere han izan ziren jarraipena egiten. Zu zara epaituko duten bakarra. Zergatik?

Sarritan, eta zoritxarrez, zer kontatzen den baino, nork kontatzen duen hartzen delako kontuan. Hori zilegi izan liteke iritzi publikoan, hartzaileak sinesgarritasuna eman edo kendu egingo dio komunikabide bati bere irizpide pertsonalen arabera, erabakiko du nork ematen dion mundu ikuspegi zintzoagoa. Baina Justiziak ezin du horrela jokatu inolaz ere, ezin du gustuko duenaren eta ez duenaren artean bereizketarik egin. Guztioi gure lana askatasunez egiteko berme berdinak eskaini behar dizkigu demokraziak. Eta, hala ez bada, ezingo genuke estatu demokratiko batez hitz egin.

Tonbola horretan niri egokitu zait epailearen aurrean proiektua eta gure jardunbidea babestu behar izatea, eta harro egingo dut gainera. Baina, badakit beste hedabide bateko kazetaria izango banintz ez nintzatekeela egoera honetan egongo. Arrain txikien aurka egitea beti da errazagoa.

Espainiako zenbait komunikabidek Urduñako ekitaldiaren berri emateko zuen bideoa erabili zuten iturri. Vocento taldeko ABCk, adibidez, "plataforma afín" gisa definitu zuen Topatu.info. Ondoren poliziak zu zigortzeko argudio bera erabili du.

Beraiek erabakitzen dute nor den kazetari. Nori eman informatzeko askatasuna eta nori ez. Nik esan nezake ABC Alderdi Popularraren "plataforma afín" dela, eta bere erantzukizuna dela Guardia Zibila Melillan migranteen aurka gauzatzen ari den sarraskia, askoren ustez Poliziaren jarrerara "justifikatzen" dutelako haien artikuluetan. Iritzi publikoaren aurrean ardura izango dute, baina Legearen aurrean ezin da epaitu kontakizun bat egiteagatik. Komunikabidea mezularia delako, eta kito. Informatuko du nahi duen ikuspuntutik, beharrezkoa iruditzen zaion zintzotasunarekin eta komeni zaion gaien inguruan. Baina kazetariak izan behar gara herritar ororen informatuta egoteko oinarritzko eskubidearen berme. Kazetari guztiok,

informazioa emateko erabiltzen dugun ikuspuntua edozein izanda ere.

Mozal Legea ezarri baino lehen neurri horiek pairatzen ari gara dagoeneko. Boterearen kontakizuna gailendu dadin, zabaltzen den istorioa eta historia bakarra izan daitezten.

Maiatz aldera izango duzue epaiketa. Nola egingo diozue aurre?

Oraindik ez dugu epaiketaren datarik, baina inguru horretan izango dela aurreikusten dugu. Egon zaitezke lasai argi daukazulako zure lanak ez duela inondik inora legerik urratu, baina zenbat euskal kazetari daude espetxean egun? Eloy Velascoren aurrean deklaratu nuenean Topatu.info zer zen azaldu nion, kazetaria naizela eta nire lana egin nuela une hartan beste hainbat kazetarik bezalaxe. Ez zidan kasu zipitzi egin. Fiskalaren txostenean ez da aipatu ere egiten kazetaria naizela, eta jarritako helegiteari epaileak kasurik ere ez. 20 orrialde inguruko txosten batean nahikoa dira lau lerro ni hemezortzi hilabeteko espetxe zigorrera kondenatu nahi izateko. Soilik jartzen du ustezko delitu baten inguruko edukiak zabaldu nituela eta, horregatik, ni ere delitu horren egilea naizela. Lau lerrotan eta argumenturik gabe doaz istorio honen albo kalte pertsonal, kolektibo zein ekonomikoak.

Zure kasuari elkartasuna adierazteko Euskal Herriko 300 bat kazetarik, argazkilarik eta unibertsitateko irakaslek sinatutako dokumentua egin da publiko aste honetan. Nola hartu duzu?

Poza eta indarra ematen du ikus-teak zure lanbide bereko herritarrek egoeraren larritasunaz jabetzen direla. Euskal Herrian kazetariok hamaika aldiz esan behar izan dugu "nahikoa da!", eta uste dut manifestu honek bidea ireki liezaiokeela bidegabekeriaren aurrean sortutako amorrua modu eraikitzailean antolatzeari. Balio beharko luke hemendik aurrera etorriko diren eraso guztien aurrean artikulatuta egoteko, modu horretan errazagoa izango baita presioa egin eta eskubide urraketari aurre egitea.



Eusko Jaurlaritza Beizamako Udalaren akten auzian pertsonatuko da

ORAINGOZ, Beizamako Udalaren auzian baino ez da pertsonatuko Eusko Jaurlaritza. Bazirudien epaitegietan diren gainerako udalen auzietan ere pertsonatuko zela, baina ez du halakorik adierazi zehazki Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak.

UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin bilera eginda gero, Baztarrikak adierazi du ez dutela ezer baztertzen eta ikusiko dutela hurrengo pausoak zeintzuk izango diren. UEMAk, Jaurlaritzak Beizamako Udalari emango dion babesa besteetara zabaltzea nahi du. Bileran hiru eskaera egin dizkio udalerrri euskaldunen erakundeak Jaurlaritzari: bi erakundeen artean koordinatzea estrategia juridikoa; Udal Lege berria udalok babesteko prestatzea; arnasmuneak sendotzeko urratsak emateko mahai bat osatzea.

Patxi Baztarrikak Legebiltzarrean adierazi duenez, administrazioen arteko harremanetan bi hizkuntza ofizialetako edozein erabil daiteke, bata bestearen beharrik gabe. Espainiako Gobernu ordezkariak behartuta dago hizkuntza ofizialetako edozeinetan tramiteak egitera.

Eusko Jaurlaritzak afera honetan zer egin beharko lukeen galdetuta, duela gutxi ondokoa zioen Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak ARGIA aldizkarian: “Jaurlaritzak uste badu Euskararen Legearen irakurketa zurruna egiten ari direla, baina lege horrek berak aukerak ematen dituela, epaiketetan egon beharko luke udalerrien defentsan. Kontrako epaiak egon daitezkeela aurreikusita B plana ere eduki beharko luke. Hau da, baloia Legebiltzarrean utzi behar da eta pentsatu zein moldaketa egin behar



Otsailaren 28ko manifestazioa, Kontseiluak deitua, Urquijok auzitara eramandako udalak babesteko.

zaizkion legeari halako gauzak saihesteko”.

Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Carlos Urquijok hogeitaz udalerrri inguru salatuak ditu udal aktak euskaraz baino ez helarazteagatik Gobernuari. Hogeitaz bati auzitara eramana, eta beste hogeitaz bati errekerimendua egin. Urquijok Euskararen Legea du helduleku, eta haren esanetan, udalek barne aktak ezin dizkiete igorri Gobernu ordezkariari euskara hutsean, gaztelaniak alboan behar du. ■

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Grezia bidea erakusten ari da

Espainia eta Portugaleko gobernuek euren terminal mediatikoak erabiliz kexa agertu dute Tsiprasek agerian utzi dituelako. Arrazoia: greziarrek azaldu dute gobernu horiek euren plan alternatiboa hondatu nahi izan zutela Europako Batasunak egindako bileretan. Hain justu, Espainia eta Portugal Troikari fidel izan dira eta austeritate politikak ezarri dituzte euren herrialdeetan. Greziako Gobernuak aldiz erakutsi du badaudela beste alternatiba politikoa eta ekonomikoa austeritateari aurre egiteko, EBko gainerako herrialdeen presioa jasan arren, Alemaniarena nagusiki.

Zentzu horretan, “gure esperantza” zen Grezia berria, herritarrekin hartutako konpromisoak betetzen ari da. Hala, herritarrek erreskatatzen hasi da bankuak erreskatatu beharrean. Jadanik abian jarri ditu lehenengo legea onartzeko tramiteak, “krisi humanitarioari” aurre egitea helburu duena. Pobrezia dauden 300.000 familiaren egoera hobetu nahi dute elektrizitatea doan emanez, etxebizitzaren alokairurako laguntzak eskainiz eta elikadura bonoak banatuz. Planak 2.000 milioi euroko kostua du eta funts

europarrekin eta zerga-bilketaren hobekuntzarekin finantzatu da.

Greziako Gobernuak erakusten ari da badakiela EBekin negoziatzen funtsezko helburuak alboratu gabe. Modu horretan, aurreko gobernuaren austeritate neurriak ezartzeari uko egin dio. Gutxieneko soldata handitu egin da –Espainiako Estatukoaren gainetik, bide batez esanda–. Etxeko kontuetan erabakiak hartu ahal izateko nazio subiranotasuna berreskuratu da. Orain ez da beharrezkoa izango hazkundea %4,5ekoa izatea, Syrizen proposatu bezala %1,5ekoa baizik. Eta azkenik, zorra kitatzea lortu ez bada ere, dirua itzultzeko baldintzetan hobekuntza handia izango du hemendik aurrera Greziak, epeak eta interesak kontuan hartuta. Hori guztia Troikaren aurrean belauniko jarri gabe, Espainia eta Portugal ez bezala. Horregatik egin dute zaunka Greziako Syrizen kontra, bidea erakusten ari delako merkatuen Europatik aldenitu eta Europa sozial baterantz egiteko. ■

Juan Mari Arregi

Urumeak eta Ebrok uholdez ospatu dute Lurzoruaren Urtea

Gero eta ugariago gertatzen diren uholde handiak ez dira soilik klimaren aldaketaren ondorio. Mundu osoan ari da oso fite hondatzen lurzorua kalitatea, nekazaritza industrialaren eraginagatik eta, are larriagoa dena, hiriek beren handitzean gero eta lur eremu handiagoak artifizialtzen dituztelako, etxez eta azpiegituraz.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

POLITIKOON LANA DA: KONPONDU itzazue herritarron arazoak, horretarako ordaintzen ditugu zergak. Hori entzun dute kolore guztietako agintariak urak harrapatutako jendeak ikustera joan direnean.

Baina askotan agintariak benetan konponbideak urri dauzkate adabakietatik harago heltzeko, ezarritzaketan konponketak oso garestiak dira, eta batzuei arazoa gainetik kentzeko beste herritar batzuk izorratu behar dituzte.

Hilabete laburrean bigarrenegun egin du gainez Gipuzkoan Urumea ibaiak otsail hondarrean; duela lau urte ere gainez egin zen. Ebrok, berriz, Nafarroatik hasita Kataluniaraino eragin dituen kalteak historian markatuta geratuko dira.

Uholde bakoitzak dauka beti berezitasunen bat, Urumeakoan aipatu da Añarbe inguruan jauzitako euri kopuru harrigarria, Ebrorean elurte handiak, baina fenomeno gero eta sarriago errepikatzen da Euskal Herriko eta munduko arroa guztietan. Ziklikoak direla egia da, baina uraren kudeaketan gertatzen ari da igelaren esperimentu famatu hartakoa: igela botatzen duzu irakiten ari den uretara eta saltu egiten du, aldiz, ur epeletan utzirik lasai onartuko du berotuz joatea... egosita hil arte.

Uriola etxeko sukaldean, tailerrean edo bulegoan sartu zaionak ura madarikatzen duen arren, lurraldearen eta luraren kudeaketan dago gakoa urarenean adina edo gehiago. Baliatu beharko genuke Nazio Batuen Erakundeak 2015. urtea Lurzoruaren Nazioarteko Urte izendatu izana orain arte egingakoaz gogoeta egiteko eta datozen hamarkadetakako aurreikusita daukagun astakeria berriak gelditzeke.

Lurzorua arazo? Begiratu Uruemari. Hasteko dago ibaiari arroan zenbateko zabalera murriztu zaion ziklikoak diren eta ugaritzen ari zaizkion salbuespen egoeretakoa—hori baizik ez dira uraldiak—. Donostiako bokaletik hasita Hernanik Epelan daukan industrialderaino... zenbat metro kubikorentzako ahalmena galdu du bailarak 1960tik hona?

Urteotan etxe, industriagune, autobide sorta, AHT, erreken bide- ratze eta istorio eraikitzekeo ibarrari ostutako eremuen inbentarioa egin beharra dago. Ibaiak kolpe berezi horietan dakartzan urek nonbaitetik pasa behar dute. Bestalde, eraikin berri guztiak aurrekoak baino goragoko mailan antolatzen dira, zaharragoak uraren mendera kondentatuz, eta zorua inpermeabilizatuz.

Loiolako edo Martuteneko herri- tar asko urpean aurkitu diren arte ez

Etxebizitzaren salerosketarako *Mitula* zerbitzuak interneten jarritako argazkian, Donostiako Loiolako Erriberak auzo berria. Urumea ibaiak itsasoan hil aurretik egiten duen azken bihurtunean, Cristina-Gladys Enea parke famatuaren eta EUTG-Deusto unibertsitatearen aurrez aurre, duela hamar urte arte ibaiak honantzako hektarea horiek erribera izan dira mende luzez, Urumeak gainezka zetorrenean azpian harrapatzen zituen baratze eta larreak. Ikusi argazkian nola 1970eko hamarkadan egindako Bilbo-Behobia autopista ere eremu honetan zutoin gainean eraiki zuten, uretik aske egon zedin. Odon Elorzaren aginte aldi luzearen amaiera aldean ibaiaren kontra-kontran horma handia eraikita bazter hauek guztiak betelanez estali ziren: autopistaren eta ibaiaren artean ikusten diren eraikinak oro azken dozena bat urtekoak dira. Horietan urik sartu ez dadin, errikan goraxeago daudenak ito behar.

dira ohartu Donostiako Udalak bezala goragoko Ingurumen agintari guztiek baimenduta Loiolako erriberetan eraiki zuten etxe sailarekin errikan antolatu zaion inbutuaz. Astigarragako biztanle asko orain ohartu diren moduan Urumea Berri urbanizazioa zein burugabea den, eta zein kaltegarria mailaz azpirago geratu direnentzako.

Kaletarrek dutenez agintariengan presio ahalmen handiena, ibaien kalteentzako adabakiak antolatzekeo lanek orain erdiz-erdi harrapatuko dituzte aspalditik bertan lasai bizi zirenak: zenbat etxe eta baserri ez dute bota edo bota behar- ko erria bideratu nahi eta ezinean?

"Stop al Consumo di Territorio"

Ibarrari kendutako metro kubikoen handiaz gain, lurzorua artifizializazioa bera da arazo larria. Milaka urtez sortutako lurzoru aberatsa, landareak hazteko, aireko karbonoa finkatu eta euri urak xukatzeko gai dena, geruza bizi hori ordezkatzeko da hormigoiz edo asfaltoz. Dinamika ez da asko aldatzen eskuinak agindu edo ezkerrak: agintariak pasatzen dira baina arkitekto eta ingeniariak ez eta hirigintza planifikatzen dutenak berezituak daude lur emankorrak antzutzen.

Honek ere uholdeekin zuzeneko lotura dauka. Eraikitako metro



koadro bakoitza da euririk irensten ez duen metroa. Plangintza egileek dena egiten dute lekuetatik ura azkar bidaltzeko, ez lekuan gelditzeko. Bidetik edo kaletik estolderiara, hemendik errekarara. Fuera zuhaitzak, urak atxikitzeke eremuak, ur-kolpeak arintzeko zabal-guneak...

Munduan anitz lekutan oso kritikakuta dago lurra eta ura kudeatzeko molde hori. Leku batzuetan neurri zuzentzaileak jartzen hasi zaizkio, parkingetan ura xurgatzen duen zorua ezarri, autopista bazterretan euriak pilatzeko putzuak, bide bazterreko erretenak ez daitezela betonezkoak izan... Baina honetan ere Hego Euskal Herria oso da Espainia eta gure plangintza

egile gehienak enteratu ere ez dira egin. Hormigoia jainko.

“*Stop al Consumo di Territorio*” kanpainak hori salatzen du Italian. Oraindik hormigoiztatu gabeko lurraren aldeko mugimendua antolatuko dute: “Azken 15 urteotan hiru milioi hektarea inguru, nekazaritzako lurrak izanak, asfaltoz eta betonez estali dituzte”.

Frantsesezko Wikipediak badauka *Artificialisation* izeneko sarrera (horregatik baimendu diogu geure buruari Xuxenek onartu ez arren euskaraz *artifizializazioa* erabiltzea) zeinetan dioen: “Frantzian 2011n lehengo Ekologia ministro N. Kosciusko-Morizeten arabera egunero batz best 165 hektarea lur galtzen da, hots, 1.650.000 m² lurzoru natu-

ral eta laborantzarako gai, etxebizitza, errepede eta jarduera industrialetarako”. Euskal Herrian zer?

Hemengoaz daukagu EHUn Geografia sailaren eskutik Eugenio Ruiz Urrestarazu eta Rosario Galdos Urrutiak 2013an plazaratutako ikerlana: “*La pérdida de los espacios agrarios, la artificialización del suelo y forestación en España y el País Vasco*”.

EAE 1999tik 2009ra hamar urte laburretan euskaldunok egin dugun triskantza beldurgarria deskribatu dute: 1999tik 2009ra artean EAE osotasunean harturik artifizializatutako eremua %21 handitu da, laborantzarako edo basotarako zeudenak etxebizitzarako edo jarduera industrial nahiz komertzialetarako bilakatuta. Hamar urtetan ia laurden bat gehiago izan bada, datozen hamarretan...

Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak (FAO ingelesezko sigla ezagunetan) 2015.a Lurzoruaren Urte izendatu du, hil ala biziko lehengai honetaz mundu osoko herritarrak kontzientziatzeko: “Lurzorua baliabide ez berriztagarria dela esaten da, ez baita gizakiaren denboraren eskalan aski fite berritzen. Izatez, zentimetro bat lurzoru sortzen zientoka milaka urte joan daitezke”. Europar Batasunak berak alarmaz aztertuta daukan artifizializazioak bioaniztasunaren zako, elikagaien ekoizpenerako eta abar dauzkan ondorioez gain zorua inpermeabilizazioa ere dakarkion kaltea.

Hemen, ordea, aipatzen da erreka eta errioak zulatu, hesitu eta gehigo artifizializatzea. Ez dute min gehiago baizik ekarriko. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Shakespearek baleki

OSASUNAKO armarria marraztu du haur txikiak paperean eta aitonari eman dio. Ohartu ere ez da egin txikia eta beste zerbait marraztera jo du, baina hunkitu egin da aitona. Urte asko pilatuak gainean eta denetako esperientziak sorbaldan, tartean futbol talde maitatuaren ibilbidea. Eta orain hau. Nola irentsi?

Nafarroako herritar asko ezin sinetsirik jarraitzen ari da Osasunarekin gertatzen ari den guztia, nahiz eta denek dakiten “futbol partiduak sagar eta letxugak bezala salerosten” direla. Aurretik CANeko guztia iragan da, Caixa-banken esku geratzea, dieten aferak, Goicoechea sailburuaren afera, Osasunari CANek emandako 55 milioiko mailegu mamua...

Ilunguneak bata bestearen atzean datoz, baina honek bereziki ukitu du herritarra. Nahi ala ez, Osasuna Osasuna da. Horregatik, herritar askok ez zuen ulertu nola Nafarroako Legebiltzarreko oposizioak (Bildu, Aralar, Geroa Bai eta Ezkerrak) ez zuen onartu futbol talde maitea erreskatatzea iragan azaroaren hondarrean Osasuna Legea onartu zenean. *Diario de Navarra* ere argi luzatu zuen berea: begira, abertzaleak dira Osasuna salbatu nahi ez dutenak.

Beste herritar askok bai, ordea, Osasuna zalea izan ala ez, berriz ere argi zegoelako UPN, PSN eta PPNk azken hamarkadatan Nafarroan moztu duten enberraren ezpál berri bat zekartela besapean. Osasunak Nafarroako Ogasunarekin zuen 53 milioi euroko zorra kitatu zuen bere futbol egoitzen truke, funtsean Sadar futbol zelaiaren truke. Etikoki baziren eragozpenak: zergatik Osasunari bai, eta beste enpresa txiki eta



ertain askori ez? Zergatik bai hainbeste diru mugitzen duen futbol profesionalaren munduan eta ez etxebizitzaren hipotekengatik kalte-tutakoekin? Zergatik ez desagertu den Itxako eskubaloit taldearekin edo beste kirol talde batzuekin?

UPNk Osasuna Legea atera zuen aurrera horrekin egoera salbatu eta dena alfonbrapean geratuko zelakoan?

Legezko zentzuzko arazoak jarri zituen oposizioak mahai gainean: egin dadila legearen ikerketa juridikoa berau onartu aurretik eta Osasunako kontuei buruzko auditoria bat. Azkenean, auditoriarena onartu zen PSNren eskariz, baina Legea onartu ondoren egiteko. Espainiako Futbol Profesionalak egindako auditoria leher-tu da lehenago eta, beste behin ere, ipurdia airean utzi ditu UPN, PSN eta PPN: Osasunako zuzendari ohi bat eta zuzendaritzako beste kide ohi bat espetxean –Miguel Archanco eta Txuma Peralta– eta lau inputatu, 2,4 milioi euro atzera aurrera ibiltze-gatik justifikaziorik gabe, ustez partiduen salerosketarako.

Zer zekien Nafarroako Gobernuak azken hamairu urteetan Osasunari gertatzen ari zen guztiaz? Asko jakiteko tresneria bazuen behintzat, beste gauza bat da nora begiratzen zuen, azken finean edozeren gainetik Nafarroak ere bere taldea lehen mailan izatea baitzen garrantzitsua. “Lehen mailan duintasunez egotea”, esaten zuen Miguel Sanz lehendakari ohiak. Yolanda Barcinak ere ez zuen saltzeko Osasunako zuzendaritza, honakoak esan zituen Patxi Izcori buruz 2012ko apirilean honek zuzendari izatea utziko zuela iragarri zuenean: “zuzendari bikaina izan da”, “lan handia egin du eta espero dut asmatuko zuela [uzteko erabakiarekin]”. 75 milioi-ko zorra zuen Osasunak eta horietatik 53 Nafarroako Ogasunarekin: gorritxoaren zuzendaritzak berak jarritako prezioan kitatu diote UPNk, PSNk eta PPNk.

Isiltasuna da nagusi Nafarroako eskuinean. Eta beldurra. *Diario de Navarra* ere isilik, baina Osasuna Legea, UPN edota Nafarroako Gobernua ahalik eta gutxien aipatuz. Galdera nagusietakoa zera izan liteke orain: UPNk Osasuna Legea atera zuen aurrera horrekin egoera salbatu eta dena alfonbrapean geratuko zelakoan?

Erantzuna airean da, baina edozein eratan 24 urtez Osasunaren gerente lanetan aritutako Angel Vizcayren bazokadak Sadar inguru osoa birrintzen ari dira. Zergatik orain? Batek daki galdera argituko den, baina izerdi hotza dario askori. Ez dakit Shakespearek “Egunen batean Nafarroak mundua harrituko du” ospetsua egiazki bota zuen ala ez, baina egia izateko bidean da esaldia. Eta nola gainera! ■

ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat

www.bertsozale.eus



Nafarroako bertsolari txapelketa

Finala Martxoak 28

Ordua: 17:00 Lekua:
Elizondoko Pilotalekua

1

Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia Gipuzkoa

www.euskalmuseoa.es

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA
www.ekainberri.com

3

PAUL SAN MARTIN PAUL'S MOOD

5 CD opari

www.hotsak.com

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2451. Argia)

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Inesa Ariztimuño Olmeño (Hendaia)

AQUARIUMA

Roberto Izaguirre Barruetaña (Bergara)

Irati Lujua Etxenike (Etxalar)

Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)

Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)

IRUÑEKO PLANETARIOA

Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)

Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)

Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)

LEINTZ GATZAGA

Errenteriako Udal Euskaltegia (Errenteria)

Rafael Larrañaga Albizu (Azpeitia)

ARGIA KAMISETA

Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.eus

www.argia.eus/guinea

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

guinea

argia



MARTXOAK

28

12:00

Konstituzio plaza

Bete dezagun Donostia euskaraz

musika · globo jolasak · magia · aire instalazioak

donostian ere
euskaraz

donostian ere
euskaraz



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



www.donostiaeuskaraz.eus